



Ikuskizuna eta giro ederra Ordokik irabazitako XLII. Urbasako Igoeran / 19

Lakuntzarrek nolako parkea nahi duten definitu dute. Orain auzolanean eginen dute / 9

Arbizun den-dena prest dute hamalaugarrenez Txistor Eguna ospatzeko / 12

Euskal Herriko Erdigunera Ibilbidea igandean, euskal lurraldetasuna aldarrikatzeko / 17

Punk taldea sortu dute bost lagunek: Mataperros; hainbat kontzertu eman dituzte / 23

SINADURAK



ANE ZELAIA RUIZ DE EGINO / 4



SAKANAKO ANITZARTEAN ZERBITZUA / 4



XABIER LOPEZ SAEZ DE ASTEASU / 10



URDIAINGO LIBURUTEGIA / 22



Arruazun sortua

Basati Alaunt heltze txakur arrazak Real Sociedad Caninaren aitortza jaso du / 6-7

"Bakoitzari behar dituen tresnak proposatzen zaizkio"

KARLOS FLORES MENDINUETA LAN ORIENTATZAILEA

Ilundain Haritz Berri Fundazioak Altsasuko Isidoro Melero kalearen 15. zenbakian duen egoitzan aritzen da. Bere egitekoa zein den azaldu digu

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Aukera faltako egoerak, aukera testuinguru bihurtzen lan egiten du Ilundain Haritz Berri fundazioak. Hainbat esparruetan egiten du hori, baina Sakanan, Altsasun duen bulegoan langabeen lan orientazioan aritzen da.

Zer da Ilundain Haritz Berri fundazioa?

Fundazioa 80ko hamarkadan sortu zen. Garaiko krisialdia zela eta, egoera soziala oso txarra zen, saiatu ziren, gehienbat, gazteak laguntzen; egoera txarrean zegoen jendeari hezkuntza sartzan, trebatzen, haien egoera larria pixka bat zuzentzen, sozializatzen eta berriro gizar-tean sartzan laguntzen zien. Hori zen hasierako ideia. Burlatan sortu zen. Egitasmoa handitzen ari zela ikusita, geroen eta lan gehiago zutela, Arangurengo Ilundain herrian egoitza zabaldu zuten. 1984tik edo han du egoitza. Gaur egun Ilundain Haritz Berri fundazioak hainbat programa ditu: prestakuntza, gizarteratze programak, lorezaintza enpresa du ingurumen kudeaketa egiteko, zurgintza

eta azken urteetan lan orientazio zerbitzua ere.

Burlatan hasi, Ilundainen segi... Orain Nafarroa guztian barna dago?

Bai. Fundazioaren programa guztiak Nafarroa guztira zabalitzen dira.

Altsasun noiztik dago?

Duela sei urtetik. Nafar Lansarek lan orientazio zerbitzua zabaldu egin zuen, eta fundazioa beraiekin lanean hasi zen. Hasieran, aurreneko bi urteetan, 2017an eta 2018an, Intxostiapunta gazte gunera astean behin etortzen ginen. Baina lan orientazio zerbitzuaren eskaera gero eta handiagoa zen. Nafar Lansareren agentzia bat dagoen herrietan lan orientazio bulego bat zabal-tzera behartu zuen gobernuak. 2018az geroztik gaude zerbitzua eskaintzen.

Berez, zuk lan orientazioa eskaintzen duzu?

Bai. Berez, lan orientazio zerbitzua Nafar Lansareren zerbitzua da. Baina Nafar Lansarek zerbitzu hori emateko beste erakunde batzuk kontratatzen ditu 2017az geroztik. Nafar Lansarek lan orientazio zerbitzua hainbat lo-

tetan banatzen du: ezgaitasuna duten pertsonak laguntzeko, egoera larrian dauden pertsonak laguntzeko eta, azkenik, lana bilatzen ari diren pertsona arruntak laguntzea. Azken horretan aritzen gara hemen.

Nafar Lansarek zergatik azpikontratatu du lan orientazio zerbitzua?

Jendea askotan nahastu egiten da. Edo guk hots egiten diegunean esaten du: "baina ni enplegu bulegoan lan bila egona naiz". Pixka bat azaldu behar diezu nor zaren, zergatik hots egiten dizun... azalpenak eman pertsona kokatzeko. Zenbait kasutan bikoiztu egiten da, baina, normalean, ez.

Zer da lan orientazio zerbitzu bat?

Nafar Lansareren zerbitzu hori bideratuta dago langabezia dagoen pertsonari lana bilatzen laguntzera. Hori da helburu nagusia. Pertsonen lan orientazio zerbitzua eskaintzeko lehenik, jakina, lehen elkarrizketa bat izaten dugu. Horrela, lan ikuspuntutik, pertsona horren behar-rak zein diren ezagutzen ditugu. Baita prestakuntza aldetik ere. Pertsonaren diagnostika egiten

dugu eta, horren arabera, baloratzen dugun zertan lagun dezakegu. Hala, pertsona horren lan egoera edo lana opatzeko aukerak hobetzeko zertan lagundu dezakegun zehazten dugu. Pertsonalizatutako ibilbide bat prestatzen dugu, haren lan helburuak lor ditzan.

Helburu horiek lantalde batek zehazten ditu?

Normalean, aholkularitza pertsonalizatua da. Nafar Lansarek guregan pertsona mordo bat bideratzen ditu astean zehar. Aurretik, pertsonen Nafar Lansaren gaztigua jasotzen dute: "Ilundain Haritz Berri fundazio-tik hots eginen dizute, zurekin elkarrizketa baterako hitzordua lotzeko". Lehen elkarrizketa horretan diagnostika egiten da. Horren arabera, zehazten dugu pertsona hori nola lagunduko dugun. Prestatzen diegun ibilbidearen barruan helburuak lortzeko pertsona horrendako egin beharreko ekintzak zehaztuta daude. Esaterako, curriculum vitae-a egiten lagundu, lan gaitasunak eta pertsonalak garatzeko zer tresnak erabili behar ditugun, lana bilatzeko zer tresna erabiltzen dituen, nola erabiltzen dituen, prestakuntza aldetik dituen beharren arabera Altsasun dagoen eskaintzaren berri eman, helburuak lortzeko zein prestakuntza den egokiena azaldu... Bulegoan ere tailerrak egiten ditugu. Tailerrak prestakuntzako pilula txiki batzuk dira, esate baterako: curriculum-a nola

"LANGABEZIAN DAGOENARI LANA BILATZEN LAGUNTZERA BIDERATUTA DAGO ZERBITZUA"

"PERTSONALIZATUTAKO IBILBIDE BAT PRESTATZEN DUGU, LAN HELBURUAK LOR DITZAN"

egiten den erakusteko; Internet bidez non bilatzen den lana, non bilatu behar den; Sakanako lan egoera nola dagoen, zein lan eskaintza dauden eta enpresek eskaintzen dituzten lan profilak nolakoak diren... Pertsonaren profil hori pixka bat bideratu Sakanako edo inguruko lanpostuetara.

Trebatzeko baliabideak Nafar Lansarek jartzen ditu?

Beraiek edo guk. Nik bulegoan antolatzen ditudan tailerrak txikiak dira, lau zabit pertsonendako. Baina tresnak, berez, Nafar Lansarerenak dira. Edo lana bilatzeko gehien ezagutzen diren tresnak.

Horretan beste erakunderen batzuekin elkarlanean aritzen zarete?

Nafar Lansarek, esaterako, *In-corpora* programa du, gehien bat Iruñea aldean. Beste entitate batzuekin harremanetan egiten dira zenbait programa egiteko. Hasieran aipatu dizut Nafar Lansarek lan orientazioa lotetan zatitu duela. Beste erakunde batzuekin mankomunatu dago. Esaterako, ezgaitasunaren lotean parte hartzen dute.

Bulegora etorri diren pertsonen jarraipena egiten duzue?

Hasieran markatutako helburuak lortu arteko jarraipena egiten dugu guk. Lan orientazio zerbitzua zerbitzu pertsonalizatua da, eta bakoitzak behar batzuk ditu, horregatik, bakoitzari behar dituen tresnak proposatzen zaizkio. Ez da denendako planteamendu bera izaten, bakoitzak behar batzuk ditu eta behar horien arabera ibilbide zehazten da. Batzuetan luzea da, motza besteetan. Kasu batzuetan pertsona batek bizpahiru hitzordu behar ditu helburuak lortzeko. Eta beste batzuek jarraipen luzeagoaren premia dute. Beraren eta nire artean erabakitzen dugunean tresna horiek hobetu direla, jarritako helburuak bete direla eta lana lortzeko aukerak dituela ikustean, askotan lana lortzen da, normalean orientazio hori ixten da. Azken finean, helburu nagusia da pertsona horrek lana bilatzea edo lanak

EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Karlos Flores Mendinueta fundazioak Altsasun duen egoitzaren atean.

lortzeko dituen tresna horiek hobetzea.

Helburuak zeinek markatzen ditu, zuk? Edo elkarrekin eginen genuke?

Normalean, elkarrekin eginen genuke, bai. Azkenean, bien arteko kontu bat da. Eta ez bakarrik Nafar Lansarek bideratzen dizkigun pertsonekin. Askotan hemendik, kaletik, pasatzen den jendeak, atea jo, sartu eta curriculum-a egiten edo prestakuntza bilatzen lagunduko ote diodan galdetzen du.

Geroz, aukera hori ere badago: atean jo eta sartzekoa?

Bai, goiz guztia zabalik egoten da. Hartzen ditudan pertsona gehienak Nafar Lansarek bideratutako pertsonak dira. Baina bada jendea, bai, pasatzen dena eta jakin-minez, bakarrik sartzen dena: "aizu! Zer egiten duzue hemen?" Edo "lan bila nabil". Edo "bada ikastarorik?" Bakoitzaren arabera. Kaletik sartzen diren pertsonen zerbitzua eskaintzen zaio, baina prozedura bat jarraitu beharra dugu. Hori bai, bai edo bai langabetu gisa izena emanda egon behar dute.

Nori zuzenduta dago?

Denetarik pertsonak hartzen ditugu. Denboraldiak izaten dira. Adinari dagokionez, esaterako, langabezian dauden 18 eta 55 urte arteko pertsonak, emakumezkoak eta gizonezkoak. Hona bideratzeko garaian Nafar Lansarek ez du bereizketarik egiten.

Esaterako, jakinarazten diet 30 lagun behar ditut. Beharraren arabera hona bideratzen dizute. Nafar Lansarek zein pertsona bideratuko dizkigun zehazteko irizpide batzuk ditu.

Zuenetik urtean jende asko pasatzen da?

Bai, asko. Ez dakit kopurua, horiek Iruñean kontrolatzen dituzte. Baina, bai, jende asko pasatzen da. 700 lagun pasako dira, 800 akaso ere. Normalean, uda partean mugimendu gutxi eago egoten da. Baina uda aurretik eta ondoren mugimendu handia izaten da.

Sakanako sozio-ekonomia errealitatearen isla bulegotik pasako zaizu, ezta?

Hala da. Egoerak asko dira, eta oso-oso desberdinak adinaren, pertsonaren prestakuntzaren edo lan esperientziaren arabera. Kontuan izanik guk bulegoan hartzen ditugun pertsonak langabezian dagoen jende arrunta dela, egoerak ez dira larriak. Beste urte batzuetan hemen hartu izan ditugu gizarte bazterketa bizi zuen jendea. Haien egoera askoz ere larriagoa da. Hemen hartzen ditugun artean nahiko larria den kasuren bat edo beste ezagutzen duzu: langabezian bizpahiru urte egin dituenak eta larrituta dago. Edo prestazioak bukatu zaizkio. Edo prestakuntza aldetik oso eskas dabil eta lana bilatzeko garaian arazo handiak dituela, gaur egun

lanpostu baterako asko eskatzen delako. Denetarik.

Jendea zein jarrerarekin etortzen da?

Egoerak asko dira. Etortzen den jendearen jarrera nahiko ona da. Hots egiten diegunean jende gutxi egiten dio uko hona etortzeari. Bi baldintza daude. Prestazioa jasotzen duten langabetuak, bai edo bai, behartuta daude parte hartzera, edo, gutxienez, behin etortzera, aurreneko elkarrizketa bat izateko. Hori prestazio bat jasotzen dutelako da. Lan eskaintza bat bidaltzen dietenean curriculum-a eta abarrera behartuta dauden bezala. Bestetik, prestaziorik jasotzen ez duten pertsonak daude. Horiek, berez, ez daude behartuta parte hartzera. Baina, orokorrean, jendearen partetik jarrera positiboa dago. Gutxienez lehen elkarrizketara etortzen da. Ikusten duenean lagundu behar diozula, jendeak ere eskertzen ditu. Azken finean, bakoitzaren beharren arabera izaten da. Batzuek lana opatzeko premia handia dute. Jende askok ez daki Internet nola erabiltzen den lana opatzeko garaian, edo lana bila-

"NAFAR LANSAREK ZEIN PERTSONA BIDERATUKO DIZKIGUN ZEHAZTEKO IRIZPIDE BATZUK DITU"

tzeko garaian konfiantza falta handia du. Gero, historikoki, jendea ohituta dago bere kabuz lana bilatzera. Zuk zerbitzua eskaintzen diozunean, bai, baina beno. "Ni mugituko naiz". Badira pertsona batzuk hots egiten diezutenak eta esaten dutenak ez dutela behar, ez zaiela interesatzen, lana bilatzeko garaian bereaiek nahikoa autonomoak direlako. Askotan jendea elkarrizketara etortzen da eta nik, teknikari gisa, erabakitzen dut pertsonak ez duela behar lan orientaziorik, nahikoa autonomo delako edo lana opatzeko edo bere egoeran bilatzeko baliabideak dituelako. Orokorrean, jendea oso positibo eta poliki etortzen da zerbitzura. **Ekonomiaren egoerak dena baldintzatuko du, ezta?**

Bai. Sakanan, gehienbat, egiturazko langabezia bat dago. Badira momentuak, lantegi bat ixten denean, esaterako, jendea etortzen da. Ez da halako eskaera handirik izaten ere. Baina, bai, gora-beherak izaten dira. Eta momentu txarrak ere bai.

Hona etortzeko latsa duenak, zergatik etorri beharko luke?

Pertsona horrek jakin behar du gu bera laguntzeko prest gaudela, bai lana bilatzen, bai bere egoera hobetzen. Gure helburu nagusia pertsonak laguntzea da, pertsonen lan helburuak lortzea. Latsa hori galdu egin behar dute. Latsa badute ere, lasai egon behar

Fundazioaren eskaintza

Bigarren aukerako eskola

Nafarroako bakarra, prestakuntza eta lan merkatu aurreko programak eskaintzen ditu 15 eta 30 urte bitarteko gazteendako. Pertsonalizatutako ibilbideetan oinarritutako pedagogia modeloa du. Parte hartzaileek Profesionaltasun Ziurtagiriak lor ditzakete. Gainera, enpresekin harremanetan jartzen dituzte. Helburua da parte hartzaileak Hezkuntza sistemara bueltatzea, edo lan merkatuan sartzea.

Lan inklusioa

Enpresen beharretara egokitutako akonpainamendua eta prestakuntza lan orientazioaren bidez. Nafar Lansareren kolaboratzaile nagusia da.

Lan sartzeko enpresa

Lorezaintza eta zurgintza lan profesionalak egiten dituen enpresa da. Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak hiru urterako kontratatzen ditu. Hainbat erakunde publiko, enpresa eta partikularrendako lan egiten du.

Gizarte inklusioa

Babesgabetasun egoeran dauden adin txikiak eta gazteen arreta programak. Hainbat egoitza ditu. Egoitzetan hartzeaz aparte, emantzipazio eta aholkulari programak ditu.


Ingurumena

Fundazioaren jardunaren zeharkako baliabidea da. Trebatzea eta lan munduan sartzea errazten du. Gainera, ikastetxei, familiei, adinekoei eta bestelakoei zuzendutako programak dituzte.

Harremanetarako:

629 566 992
orientacion17@
fundacion-ilundain.com

dira. Hemen atea zabalik ditugu eta beti laguntzeko prest gaudela. Horretarako gaudela jakin behar dute. Horretarako zerbitzua gara.



ASTEKOA

ANE ZELAIA RUIZ DE EGINO

3usk4l telebista

"Arrazista edo matxistagoa zara?" Galderarekin eman dio hasiera Broncanok *La Revuelta* telebista saio arrakastatsuari. Entzuleria harrapatzeko amu berria izan daitekeela pentsatu dezakegu.

Bitartean *El hormiguero*-k ere erronka berriak sartu ditu. Influencer bat 48 orduz hilkutxa batean sartzea edota "adrenalina emakumea" paraxut baten bidez 60 metroko altueratik botatzea. Entzuleria harrapatzeko beste amu bat.

La revuelta edo *El hormiguero*-ren arteko lehia izan da azken asteetan guztion ahotan egon den gaia, nahi gabeen bata edo bestea aukeratzera behartu zaitu Twitterren irakurritako hariak edota egunkari desberdinek igotako albisteak.

Irailean ETB-k denborali berriaren aurkezpena egin zuen. Bertan, telebista saio ezberdinak ezagutzera eman zituen, *Vaya*

ARRETA ESPAINIAKO KATEETARA BIDERATUA EGON DEN HONETAN, BADA KIZU ZEIN DEN ETBREN EGOERA NAFARROAN?

bideratua egon den honetan, badakizu zein den ETBren egoera Nafarroan? Zenbatetan galdetu duzu, "Zuk ETB ikus dezakezu?".

Agian berriz ere parabolika bat jarri beharko dugu Aralarren.

Semanita, *Generación Click* edota *Vascos por el mundo*. Ezaugarri amankomun bat dute: denak gaztelaniaz dira. ETB3ren inguruan esandakoa ia hutsala izan bada ere, Nafarroarekin zerikusia handia izan du. Nafarroako Gobernuak ETB3 emitituko ez duela jakinarazi zuen.

Arreta Espainiako kateetara

HARA ZER DIEN

Sentsazionalismo-morbotik, enpatiara

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

2024ko udan, migrazioak eta mugak "bolo-bolo". "Errekortzat" jo da 2 hilabetetan 6.000 pertsona migratu Kanariar Uharteetara iristea. Ez, ordea, uztailean bakarrik 1,16 milioi turista iristea.

Uda ondoren, eraiketa, ziurtasun eza, lapurretak, bortxaketak eta immigrazioa bezalako hitzak nahastu dira, non gauden eta norantz goazen ulertzeko gure gaitasuna ukatuz, migratzaileekiko beldurra areagotuz, eta deportazio ilegalak justifikatuz. Neuririk gabeko gezur-astakeriak entzun ditugu (hasi Kaskanteko apaizetik, Trump bezalako ultraeskuindar agintarien adierazpenetara), erreazio gehiegirik gabe.

Non gaude, hortaz? Migrazioei, migratzaileei beldurra al diegu? Sinisten dugu esaten digutena? Non dago kritikoak, justuagoak, justizieroak, berdintzaileak izateko gure gaitasuna? Lasai gaude horrela?

Zeozter egiterik? Askoi! Enpatian saiatu. Galdetu gure buruari: zein dira migratzeko arrazoiak? Zer dago atzetik? Inork jarriko luke bere bizitza, nola bere seme-alabena arriskuan, irtenbide seguruagorik balego?

Zein nolako tratatu txarrak pairatzen ote dituzte helmugarako bidean? Fisikoak, psikologikoak, sexualak, azalaren koloreagatik, adinagatik... Zenbat oinarrizko eskubide urratzen zaizkie? Lan baldintza esplotatzaileak; erroldarik ez izatea, osasungintza, hezkuntza, etxebizitza, egoera

erregularizatzea... Deportatuak izatearen mamuak helmugan; ametsak, amesgaizto!

Ahaztu dugu migrazio herria izan garela, garela eta izango garela? Jabetzen gara migratzaileei esker gure bizitzarekin aurrera goazela? Nork zaintzen ditu gure adineko asko? Nor da eraikuntzan lanean? Ostalaritzan? Nork egiten du ekarpena gizarte segurantzarako poltsan? Eta jaiotzen gorakadan?

Galdera hauekin ez ote genuke beste modu batean hitz egingo? Mesede elkarri egingo? Zer moduz, fokua / erantzukizuna behar den tokian, jartzea? Nor da egoera tamalgarri hauek baimentzen dituen?

Sentsazionalismo-morbotik, enpatiara pausoak ematea bidezko eta osasuntsua delakoan...

GUTUNA

Emilio, gogoan zaitugu!

UNAI OTERMIN

SAKANAKO KONTSEILU SOZIALISTAKO MILITANTEA

2024ko urrian 90 urte beteko dira Altsasuko langileria altxatu, eta Urriko Iraultza deitu izan denaren testuinguruan kaleak hartu zituenetik. Altxamendu horren laugarren egunean, 1934ko urriaren 8an, atxiloketa

batzuk ekiditen ari zituenean, eta bere semea besoetan zuen bitartean, guardia zibilak Emilio Iguzkiza erail zuen.

80 urtez ahanzturan egon ondoren, Altsasu Memoriak gertakari latz eta triste hura, herrian batere ezaguna ez zena, argitara ekarri zuen 2014an, Emiliori egindako omenaldi publikoan.

90. urteurrena dela eta, Sakanako Kontseilu

Sozialistatik egitarau xumea prestatu dugu Emilio Iguzkiza eta borrokan erori ziren beste guztiak omentzeko. Urriaren 11n, ostirala, 18:30ean, hitzaldia izango dugu Gure Etxean, Iosu Chueca historialari eta EHU-ko irakasle ohiarekin batera. Bertan, iraultzak Euskal Herrian eta Altsasun izandako eraginaz eta egun horietan gertatutakoaz hitz egingo

dugu. Hurrengo egunean, urriaren 12an, guardia zibilarentzat ospakizun eguna den horretan, komunistok, 13:00etan, haiek eraildako Emilio Iguzkizaren memoria bizirik mantentzeko ekitaldia ospatuko dugu Gartzia

Ximenez kalean, Emilioren oroigarriaren parean.

Hau horrela, Altsasuko zein Sakanako langileria hitzaldian zein omenaldian parte hartzera gonbidatzen dugu.

Emilio, gogoan zaitugu!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteartea 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus



www.guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maidier Gabirondo Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuak

GUTUNA

Gero eta aldeko gehiago: Aniztasuna, vs Uniformizazioa; Bizikidetzaren, vs Autoritarismoa**OSKAR ZAPATA ETA IÑAKI SAGARDOI**
EUSKALTZALEEN TOPAGUNEN KIDEAK

Gaur egun Nafarroan euskaltzaleok ez dugun gehiago soziala eraikitzekeo narratiba osagarriak eta jokaera eraginkorrak eskaintzea da gure helburua.

Gure proposamena da euskararen inguruko elkarrizketak, eztabaidak beste joka leku batera mugitzea, hain zuzen ere bestelako baloreetan, partekatutakoak, diren horietan gaia kokatzeko. Honatx ideia batzuk:

Aniztasunaren aldeko posizionamendua, biodibertsitatearen defentsatik haratago doan zerbait da, horren baitan aniztasun kulturalaren defentsa era bada. Hizkuntzak barne, jakina. Euskara bertako hizkuntza da. Hortaz, aniztasuna balioan jartzen dugun pertsona eta erakunde guztiek, koherentzian jokatzeko gero, euskara egoera osasuntsuan egotea helburua izan behar genuke.

Espezieek, landareek, pertsonak bezala, Hizkuntzek euren biziraupena ziurtatzeko habitat egokia eta nahikoa, bermatuta eduki behar dute:



legez eta baliabidez. Aniztasunaren izenean, babesa, sustapena eta prestigioa eman behar zaio euskarari.

Izan ere, Euskara Nafarroako aniztasun eta aberastasun kulturalaren isla da. Arlo kulturalan munduko aniztasunari Nafarroak egiten dion ekarpen gorena. Irati oihana eta Bardeetako basamortuarekin batera, bide batez esanda.

Ez hori bakarrik, Euskararen sustapenak bertako ekonomia garatzen laguntzen du. Lanpostuak sortzen ditu, sustapenari, kulturari loturikoak; enpresak sortzen ditu, antolatzekeo modu

berritzaileak eskaintzen ditu, eta horrek guztiak aberastasuna ekartzen dio Nafarroari. Beraz jasangarritasunaren aldeko hautua ere bada euskararen aldekoa.

Berdintasunaren aldeko posizionamenduan, pertsonen artekoa ez ezik, hizkuntzen artekoa ere kontuan hartu behar da. Egoera zaurgarrian dagoen pertsona eta kolektiboekin ekitatez jokatzeko, justizia egitea da. Hizkuntzen gaian ere berdin jokatzeko zentzuzkoa da. Bertako bi hizkuntzetatik bat dago egoera zaurgarrian, euskara. Egin dezagun haren alde, hasteko biak estatus

berean jarriz, hori baita egokiena berdintasun ikuspegitik.

Demokrazian errespetatu eta sustatu egin behar dira hizkuntza eta kultura gutxiagotuak, herrikide guztion duintasunaren aitortza baitira. Autoritarismoari eta uniformizazioari ateak ixteko bide bat.

Jakina gatazkak egon badaude eta euskararen biziberritze prozesuan ere bai, naturala da. Horren kudeaketa era demokratikoan planteatzea da bidezkoa: elkarren ondoan eta elkarrekin bizi eta biziko gara, beraz hasi gaituzen posizioak hurbiltzen.

Jendartean gertatzen diren egoerak dinamikoak dira.

Beraz errealitate soziolinguistikoa, ezin da planteatu egoera aldaezin gisa. Egungo egoera, euskararen mesederako alda liteke, neurri sustatzaileagoak hartuz.

Ametsetan jarrita, pentsa dezagun, etorkizunean nafar herritar orok bertako bi hizkuntzak ulertzea zein izanen litzateke. Aitortza eta errespetuzko ariketa eraikitzaile erraldoia, bizikidetzaren adierazle.

Hortaz, Kontsentsuak lantzea garrantzitsua da. Alta, akordioak euskararen indarberritze bidean eraiki beharko dira. Bizikidetzaren, izan ere, kultura eta hizkuntzen aitortzatik etorriko baita, ez ukaziotik.

**URRIAK 14-18**

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irrátiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Urriak 14 Olaia Eizagirre LGTBifobia kirolean

Urriak 15 Elena Montoro

'Geroaren bidean' proiektua

Urriak 16 Bertsoa.eus eta

'Makarriketak' podcast-a

Urriak 17 Zama 'Azken doinuak

etxerantz' jaialdia

Urriak 18 Agenda berezia

OBJEKTIBOTIK**Etxarriarrak eskultore**

Etxarri Aranazko ferietako larunbat goizean horrela esnatu zen iturria. Parranderoak artistiko jarri ziren eta iturrian interbentzio sortzailea egin zuten. Irakurle batek bidalitako argazki honetan argi ikusten da iturriak hesiez egindako armazoi artistikoa ongi eusten duela, baina zuhaitz gaixoari behar baino pisu handiagoa jarri diotela gainean eta nahiko lan duela hesiarekin. Artistiko jartzea ongi dago, baina naturarekin horrela jolasteak ez du inolako arterik.



UTZITAKOA





Udalak eta Ondare taldeak elkarlanean segituko dute, eta asmoa da Agirira urtean behin joatea. UTZITAKOIA

Agiriko eliza auzolanean txukundu dute

Egonkortze lanak egin eta gero utzita zegoen herriko arkeologia ondarea txukun utzi zuten. Horrekin batera, eliza zenaren inguruan hesia jarri zuten. Langintza horretarako goiz bat behar izan zuten

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL

Aralar magalean dagoen Agiri despopulatuko elizan arkeologia indusketa egiten hasi ziren 2012an. Hartan lanean aritu ziren jubilatutako ubertearrak, Zizur Nagusiko institutuan historia irakasle eta Ezpilleta elkarteko kide den Pedro Arreseren zuzendaritzapean. Arkeologia indusketen ondoren, eliza hartu zuen eraikineko paretak egonkortzeko lanak hasi zituzten ubertearrek. Azken urtez 2019an izan zen, pandemiarekin guztia eten baitzen. Ordutik despopulatuko eraikina utzita zegoen. Harik eta hogeit hamar urte larunbatean joan ziren arte. Guztiak ere Uharteko Arakilgo Udalak eta Uharteko Ondare taldeak egindako deialdiari erantzun zioten.

Auzolanean aritu zirenak eliza zenaren barruan zeuden hostoak eta adarrak kendu zituzten. Gainera, zutik geratzen diren paretetako harrien artean sortu ziren landareak ere kendu zituzten, paretak garbi utziz. Elizaren

perimetroa txukundu zuten, sasiak eta hostoak kenduz. Egitekoak despeditzeko, elizaren inguruan hesi bat jarri zuten, goiko partetik jendea eta animaliak bertara eror ez daitezken, etaazienda eta piztiak bertara sartzea eragozteko. Atea zenaren parean ere hesitxo bat jarri zuten. Maldasega, borra, burruntxarrie edo aritto, erratza, pala edo eskuekin lan egiten aritu zirendako udalak gosaria jarri zuten. Eliza zena txukun utzi ondoren, goiza han eman eta gero, herrira bueltatu ziren.

Despopulatuaz

Madotz eta Aralarko santutegia lotzen dituen bidearen bazterrean dago Agiri (Agiregi) despopulatu

AZKENEKO URTEZ 2019AN IZAN ZIREN AGIRIN LANEAN, PANDEMIAREKIN GUZTIA ETEN BAITZEN

tua, 900 metroko altueran. Elizak 13 metro luze eta 6 metro zabal ditu. Pareta zabalak dira gelditzen dena. Iparraldeko pareta finkatzen lan egin behar izan zuten, barrura "puztuta" baitzegoen. Elizak atea hegoalderantz du, ibarreko elizen moduan (Lakuntza salbu). Egindako lanek erliebedun harriak (ateko kapitela) eta alaka zuzen eta borbilduko harriak agerian utzi zituzten. Elizaren hegoaldeko hormaren luzeran harrizko banku bat izan daitekeena ere ageriarazi zuten. Elizatea hilerria izan zenaren gainean eraiki zuten, antza. Elizaren, eta herriko etxeetako teilatua begetalaz, "ziurrenik zekalez egina".

Agiriko herri despopulatu bera hamahiru etxez osatuta dago. Arresek haietako bat ikertu zuten: 105 metro karratuko azalera eta 90 cm-ko zabalerako paretak ditu. Paretan altura ez da metro batera iristen. Atea, hegoaldean zuten. Iltzeak eta zeramika zatiak opatu zituen.

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Basati Alaunt txakurra, Presa Navarro bezala ezaguna ere, ofizialki talde etniko gisa aitortu dute. Xabier Ovejero Ganboa arbazuarrak esan duenez, "aitorpen horrek mugarri bat ezartzen du arrazaren historian, baita txakur nafar horren iraupena bermatzeko etengabe borrokatu dutenen lan nekagaitzean ere". Gaineratu duenez, "Basati Alauntaren aitortzea ez da bakarrik arraza horrendako zorionekoa, baizik eta bere sustapenean eta zaintzan konprometituta dauden pertsonendako ere. Hiru hamarkada baino gehiagotan, pertsona horiek etengabe lan egin dute arraza tradizional hori mantendu eta ugartu dadin, bere ezaugarri funtzional eta morfologikoak errespetatuz". Ovejero jakinarazi duenez, "Real Sociedad Caninaren aitortza lortu ondoren, Nekazaritza eta Elikadura Ministerioaren aintzatespena lortzeko prozesuan gaude. Eta orain Nafarroako administrazioaren esku dago Basati Alaunt arraza garatzeko gure lana babestea edo oztopatzea".

Arbazuarraren iritzi, "aitorpen horrek mugarri bat ezartzen du arrazaren historian, baita txakur nafar horren iraupena bermatzeko etengabe borrokatu dutenen lan nekagaitzean ere". Gaineratu duenez, "Basati Alauntaren aitortzea ez da bakarrik arraza horrendako zorionekoa, baizik eta bere sustapenean eta zaintzan konprometituta dauden pertsonendako ere. Hiru hamarkada baino gehiagoan, pertsona horiek etengabe lan egin dute arraza hori mantendu eta ugartu dadin, bere ezaugarri funtzional eta morfologikoak errespetatuz".

Hark azaldu duenez, "Basati Alaunt-a mendeetako tradizio baten emaitza da; lanari, naturarekiko errespetuari eta gizakiaren eta animalien arteko harreman bereziari lotua. Bere izaera noblearekin, txakur hori urteetan erabilia izan da ehiza larrirako eta zezen suharren kudeaketarako, funtsezko egin-kizuna betez Nafarroako landa eremuetan". Gaineratu duenez, Iruñeko Andre Mariaren Jasokundearen katedralean XIV. mendeko irudiak dauden zeinetan zezen suharren kudeaketan eta ehiza eszenetan aritu ziren txakurrak ikus daitezke.

Arruzun sortua

Ovejero jakinarazi duenez, "1990ean hasi nintzen txakurkin. Gorri izeneko txakur eme batek bere izaerarekin liluratu ninduen. Eta erabaki nuen txakur hartatik abiatuta txakur arraza bat sortzea erabaki nuen". Horren zergatiak galdetuta, arbazuarrak esan duenez, "Egia esan, inork ez zidalako esan ezin nuenik egin. Eta ez nekielako hainbesteko lana izango zenik". Arrazari Basati Alaunt edo Presa Navarro izena jarri zion.

Arbazuarrak herrian bertan, Lakuntzan, Etxarri Aranatzen, Aretxabaletan, Arrasaten eta beste hainbat tokitan presa edo heltze txakur mota horren zaleak ziren pertsona asko zegoela bazekien. "Baina kanpoko arrazak ziren, amerikarrak, argentinarrrak, espainiarrak... Nik gure arraza propioa atera nahi nuen, hemengoa".

Kluba

Arrazaren sortzaileak esan duenez, "mundua txikia da, eta za-



Basati Alaunt txakur pare bat. UTZITAKOIA



Arruazun sortutako Basati Alaunt arrazako heltze txakur bat. UTZITAKOIA



Klubaren sortzaileak: Luis Martin San Miguel, Pedro Saez de Jauregi eta Xabier Ovejero.

Basati Alaunt edo Presa Navarro txakurra talde etniko gisa aitortu dute

Makina bat txakur hazleren 30 urteko ahaleginaren eta arduraren fruitu da Estatuko Real Sociedad Caninaren aitortza. "Aitortza bertako arrazak babestearen eta gure ondarea bizirik mantentzearen garrantzia gogorarazten digu"

letasun bakoitzaren barruan azkar opatzen duzu 'buruko arazo bera duen jendea!' Berehala ezagutu nuen txakurrak zeuzkaten pertsonak, eta Valtierratik Doneztebera proiektu komun batean elkartu ginen hiru lagun, "lanaren, aniztasunaren eta lan-kidetzaren adibide". Bidea egitearekin batera, arraza ofizialki onartzeko prozesua hasi zuten. Eta, azkenean, Nafarroako Gobernuak animalien ongizate zerbitzuak jarritako baldintza betez, elkarte edo klub ofizial bat sortzea erabaki zuten: Sociedad de Amigos del Presa Navarro (SAPN), "funtsezko zutabea izan da arraza horren kontserbazio eta sustapenean". 2015ean eratu zuten. Aipatu zerbitzuak jarri zuten beste baldintza izan zen "gure txakur guztien genetika eta biometria azterketa egitea. Tamalez, lan ikaragarri hori

egin ondoren, Nafarroako Gobernuak arrazaren aurrerapeneraren kontra besterik ez du lan egin. Interesatzen ez zaizkien gaietan ohiko arazoa da hori administrazio askotan", esan du arbazuarrak.

Ovejero azaldu duenez, "klubaren lana arraza zaintzea da eta bere aintzatespena lortzea. Bere funtzionaltasuna eta morfologia mantentzea zaintzen du. Txakur zintzoak, osasuntsuak eta izaera onekoak izaten jarrai dezaten zaintzea da bere egitekoa". Gaur egun klubak 150 bazkide inguru ditu, horien artean ehiz-

"SUSTAPENEAN ETA ZAINTZAN KONPROMETITUTA DAUDENENDAKO ERE BADA AITORPENEA"

tariak, txakur hazleak, familiak edo arraza horren zaleak daude. Kideen artean, jakina, sakandarrak daude. "Arrazako txakur onenetako batzuk Sakanan jaiok dira", jakinarazi du arbazuarrak.

Klubak webgunea egin zuen, *sapn.es*, eta, ondoren, "mundu osoko jendea hots egiten hasi zen. Jendeak heltze txakur mota hori gustuko du, eta gurea maitenetako bat da". Klubaren webgunearen (*www.sapn.es*) bidez, arraza horren historiarekin lotutako informazio guztia eskuratu daiteke, baita txakurren genealogiak kontsulta daitezke ere. "Estatuan gardentasun maila hori eskaintzen duen klub bakarra gara, 1989. urtera arteko txakurren genealogiak jarraitu daitezkeelarik. Gainera, klubak informazio baliotsua eskaintzen du arraza horri buruz gehiago jakin nahi dutenendako".

Altxorra

SAPN klubeko kidearen iritziz, "Basati Alaunt-a gure kultur eta natura ondarearen altxorra da. Bioaniztasunaren babesa eta ingurunearekiko errespetua baloratzen ditugun garai honetan, arraza horrek bere gaitasuna nabarmentzen du, hiri zein landa bizitzaren beharrianetara egokitzeko. Bere izaerak ez du bakarrik bere lan tradizionalerako proposa egiten, lagun gisa ere erabil daiteke. Basati Alaunt-a garatzeko eta babesteko ahaleginak tradizioen kontserbazioarekin eta bioaniztasunaren babesarekin konpromiso zabalago bat islatzen du". Jakinarazi duenez, Frantzia, Ingalaterran, Brasilen, Argentinan eta Amerikako Estatu Batuetan interes gero eta handiagoa dago arraza horretako txakurrak esportatzeko, eta horrek "arrazaz nazioarteko erreferente bihurtzeko duen potentziala erakusten du, kluba egindako lan sakonaren isla da".

Arrazaren gardentasun eta zabalakundearekin konpromisoa hartuta dute klubeko kideek. Adierazi dutenez, "bere kontserbazioan konprometituta dauden pertsonen ahaleginari esker, arraza horren txakur bakoitza

"TXAKUR ZINTZOAK, OSASUNTSUAK ETA IZAERA ONEKOAK IZATEN JARRAITZEA ZAINTZEN DU KLUBAK"

gure historiaren zati bat da, bizirik dirauen tradizio bat. Basati Alaunt-a babestean, bizirik dagoen ondare bat kontserbatzen laguntzen ari gara, pertsonak beren ingurunearekin eta mendeetan zehar beren lagun izan diren animaliekin lotzen dituen".

Arrazaren sortzaileak sakan-darrak *sapn.es* webgunea bisitatzera eta haien txakurrak ezagutzera gonbidatu ditu. Azaldu duenez, "urtero, Aste Santuko igandean, Donezteben bilera egiten dugu. Sakanan jatorria duen arraza horretako 200 bat txakur inguru elkartzen dira. Hartan parte hartzera ere gonbidatzen ditut sakandarrak". Gaineratu duenez, urtero hutsik egiten ez duten beste bi hitzordu ere baditu SAPN klubak: Uhar-te Arakilgo Artzain Eguna eta Irurtzun era Arakilgo bertako ganadu azoka.



KIDETZAREN BARRUAN

■ IGO FITXATEGIAK INPRIMATZEKO

Bidali zure fitxategiak webgunetik zuzenean

www.txartel.net



Osasuneko profesionalak eskolan haur bat aztertzen. UTZITAKOIA

"Ikaskuntza zailtasunak ez dira arazo bat, ondorioa baizik"

ELENA MONTORO VILLANUEVA ORIENTATZAILEA

Lakuntzako Herri Eskolak "Geroaren bidean" proiektua landu zuen aurreko ikasturtean eta emaitzen aurkezpena egin zuen irailaren 27an

Alfredo Alvaro Igoa LAKUNTZA

Neurogarapenean oinarritutako proiektu bat martxan jarri zuen Lakuntzako Herri Eskolak Lehen Hezkuntzako 4. mailako gelarekin. Ikaskuntza arazoak bideratzea lortu zuten.

Zein da proiektuaren hazia?

Orientatzaile gisa, besteak beste, ikasleek dituzten ikaskuntza zailtasunak aurkitzeaz ardurtzen naiz, lantaldearekin bideratzeko edo, ahal bada, zuzentzeko. Konturatzen ginen eskolan denek lan handia egiten

genuela eta emaitzak ez zirela behar bezain handiak: ikasleek jarraitzen zuten akats berak edukitzen. Neurogarapena ikasten hasi nintzen. Lakuntzako eskolan Maia Ginea ezagutu nuen, orain zuzendaria dena, eta Andrea Etxabarria, pedagogia terapeutikoko irakaslea. Eta Eloy Capapai ezagutu genuen, neurogarapenean espezialista. Laurak zailtasunen inguruan hitz egiten hasi ginen.

Guretako ikaskuntza zailtasunak ez dira arazo bat, ondorio

bat baizik. Haurra edo ninia garatzen ari denean, burmuina garatzen ari dela, gerta daiteke garatze horretan arazo batzuk edukitzea: entzumenekoak, ikusmenekoak, motorrak... gauza asko izan daitezke. Garatzean arazo horiek badaude, oso ohikoa da ikaskuntza zailtasunak edukitzea. Maiak, Andreak eta hirurok erabaki genuen eskolan proiektua martxan jartzea. Gurasoekin eta klaustroarekin hitz egin genuen.

Zein zailtasunez ari zara?

Normalean baloratzen ditugunak dira: irakurtzeko edo idazteko zailtasunak, matematiketan zailtasunak. Izan daitezke ere arreta eta kontzentrazio arazoak edo hizkuntzaren garapenaren arazoak. Ikaskuntzaren nahasmenduez ari naiz, ez matematiketan arazoak dituzula. Nahasmenduak zailtasun handiak dira. Horiek eskolan detektatzen ditugu, eta Hezkuntza Departamentuak ematen dizkigun jarraibideekin tratatzen ditugu.

Neurogarapenean oinarrituta, gu konturatu gara zailtasun horiek guztiak ondorioak izan daitezkeela. Esaterako, ninia estreinakoz katuka hasten denean sistema bestimularra (oreka), sistema propiozeptiboa (motorra eta sentsazioak) eta ikusmena aurrenekoz konektatzen dira. Ongi garatuko ez balira: ez badu katuka ongi egiten, jaiotzean bentosa edo forzepsa erabiltzea-gatik garunean trauma pittin bat badauka, kolpe bat izan duelako... Edozer gauza izan daiteke arrazoa hiru sistema horietakoren bati eragiteko. Garunak eremu asko ditu eta agian batean trauma modukoa gelditzen da. Sinapsiak (zelula batek beste batekin egiten duen kontaktua) ez dira behar bezala ibiltzen. Garunak ohitzeko bere lana egiten du. Baina gero haurrengan zailtasun horiek aurkitzen ditugu hiru sistema horietan. Horregatik, komenigarria da, prebentzio moduan, eskolatan txikiak direnean ikusmena eta entzumena tratatzea eta lan motor handia egitea.

Kezka zuena zen? Gurasoena?

4. maila aukeratu genuen Haur Hezkuntzan zeudenetik arazo batzuk zituztelako. Haur Hezkuntza konfinamenduan bizi zuten. Jokabide arazo pila izan dituzte, eserita egoteko, beraien bulkadei eusteko... Hortik idazketa eta irakurketa ikasteko eta matematiketan arazo pila. Askotan uste dugu ikasle bat ez zela esertzen, oso inpulsiboa delako eta ezin delako gelditu. Eta uste izaten dugu arreta-gabeziagatik nahasmendua dela eta medikura bidaltzen dugu.

"IKASKUNTZAREN NAHASMENDUEZ ARI NAIZ. NAHASMENDUAK ZAILTASUN HANDIAK DIRA"

Batzuetan ez da hori, txikitatik erretiratu ez den erreflexu bat da, galant erreflexua, eta ezin da eserita egon. Mugimendurekin tratatu behar da, desagerarazteko. Ikaslea esertzerara iristen da, besteak bezala. Guztia gurasoei azaldu genien. Gurekin konfiantza zuten, eta ez zekiten zer egin ikasleekin. LHko 4. mailan zeuden eta ez genuen ikasketa mailan bideratzea lortzen. Ikasturte guztian harremana eta kontaktua mantendu dugu. Esperientzia berria zela jakinda, gainean egon ginen eta kontrol handia mantendu genuen. Gurasoei esan genien: "ona ez dela ikusiko bagenu, moztuko dugu". Zorionez, ez zen horrela izan.

Nola bideratzen dira zailtasunak?

Ez beti, baina, orokorrean, bideratzen dira. Lehen aipatutako hiru sistemak gure garapenaren oinarria dira. Batera garatzen dira, baina gerta daiteke batean zerbait ondo ez joatea. Esaterako, ikasle hori txikia zenean belarrian mukia izan zuen eta ez zuen ongi entzuten. Ikasleak ez du ondo entzuten eta ez ditu hitzak edo gramatika egiturak ondo barnatzen. Hor hutsune bat dugu. Entzumenak, ikusmenarekin batera, informazioaren sarrera dira, barruan deskodifikatzeko. Mukia dagoelako informazioa ez bada ongi sartu, ezin izanen du behar den moduan atera. Ikasleak hitz egiten denean ez du ongi hitz eginen. Eta artikulazioari, ahoan dugun tresna motorrari eragiten badio, dislaliarekin hitz eginen du, eta arazo horiek mantenduko dira denboran ez badugu horren gainean lan egiten.

Batzuetan arazo horiek mantentzen dira, eta 2. mailara ailegatzen gara arazo pila bat irakurketa eta idazketa garatzen. Baina atzera jo eta entzumena, soinua, artikulazioa eta beste lantzen hasiko bagina, segur aski lortuko genuke hori bideratzea. Batzuetan familiek esaten dute "ez du asko irakurtzen, ez du gustuko". Jakina, ezin du. Eta ezin baduzu, irakurtzea gorrotatzen duzu. Hori gaizki badao, ez da zuzentzen gehiago irakurtzen. Komenigarria atzera jotzea nondik heldu den ikusteko: ikusmenekoa, entzumenekoa, motorra, emozionala. Jokabide arazoak askotan oso emozionalak dira.

KOLABORAZIOA

Sai zuria

XABIER LOPEZ SAEZ DE ASTEASU

Europar dugun saien familiako kide txikiena da, 150 cm-ko hego-hedadura dauka. Ale helduek kolore kontraste oso markatua erakusten dute, gorputz zuri eta hego beltzak. Agian espezie honen atal bereizgarriena burua da, aurpegi hori bizi, moko kurbatu eta gandor motz bat erakusten duelarik. Ale gazteak berriz, kolore ilun apalagoekin jantzen dira. Hegaldi oso zuzenak egiten dituzte eta korronte termikoak aise erabiltzen dituzte energia aurrezteko.

Normalean bakarrik hegan ikusten den espeziea da, zenbaitetan sai arreekin hegan egiten ikus daitezke.

Animalia sarraskijalea da baina intsektu zein narrasti edo anfibio txikiak harrapatzeko gaitasuna du. Hegazti azkarra da, 90. hamarkadan Felix Rodriguez de la Fuente dokumentalistak ospea eman zion haien dokumental bat publikatu ondoren. Bideo horretan, animalia hauek harriak erabiltzen ikusi ahal genituen ostruka arrautzak apurtzeko asmoarekin.

Fama lortu zuten bai, hala ere, espeziearen gainbehera oso nabaria eman zen. Abeltzaintza estentsiboarekin oso erlasionatutako espeziea denez oso erraz pozoitu ahal ziren.

Gaur egun, espeziea babestuta dago eta hauen populazioa hobera doa. Sakanan animalia hauek ikusteko aukera dugu hainbat bikote gure haraneko harkaiztietan kumatzen baitira.

Sai zuriak martxo hasieran iristen dira gurera. Espezie migratzailea da eta negua Afrikan ematen du. Negu amaierarekin batera neguko kuartelak uzten dituzte eta iparraldera bidaiatzen dute. Urtero, otsaila amaieran edo martxo inguruan Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko lankide ohien mezuaren zain egoten naiz. Afrikatik iritsi bezain pronto Arbizuko Transferentzia Gunetik pasatzen dira bazka errazaren bila. Sai zurien aurretik miru beltzak (*Milvus migrans*) agertu ohi dira, baina zalantzarik gabe, poztasun handiena ekartzen



duen etorrera gure protagonistarena da. Espezie karismatikoa eta Hondakin Zerbitzuak bere ikono/irudi bezala hartu du *BerrURAbili* lelopean.

Sai zuriak Sakanara iritsi eta aste gutxitara lurraldea finkatu eta ugalketari hasiera ematen diote. Harkaiztietako gandorretan lehen kopulak apirillean ikus daitezke. Garai frenetikoak dira kabia ere prestatu behar dutelako. Honetaz gain, lurraldea defendatzen energia asko kontsumitzen dute. Normalean aurreko urteetako kokapenak erabiltzen dituzte kabia ezartzeko, hau, makil zein beste materialekin txukuntzen denbora luzea ematen dute.

Emeak arrautza bat edo bi jartzen ditu. Hauen inkubazioan bi gurasoek parte hartzen dute. 42 egunen ostean txitak jaiotzen dira.

Aralarren zein Urbasa-Andian azienda asko egoten da udako larreak probestuz. Abeltzaintza estentsiboa mantentzea ezinbestekoa da habitat berezi batzuk mantentzeko eta sai zuria bezalako espezieei fabore egiteko. Sakana ingurune ezin hobea da alde horretatik, iparralde zein hegoaldean abereen sarraskiak topa ahal direlako sai zuria ugalketa garaian. Honetaz gain, mendebaldetik ekialdera, hau da, Ziorditik Irurtzunera haranaren bi aldeetan garrantzia duten harkaiztiak ditugu. Hauek espeziearen bizi-zikloan funtsezkoak dira bertan ugalketa ematen delako.

Sai zuria Kaltebera mehatxu kategorian sailkatutako espeziea da. Gaur egun pozoia da. Ale gehiagok bizitza galtzen dute linea elektrikoetan

elektrokutatuta edo pestizidek kutsatuta. Era berean, geroz eta zale gehiagok espeziearentzat funtsezkoak diren harkaiztietan kirola egiten dute. Kirolzale hauek, katalogatutako espezie hauen ugalketaren porrota ekar dezakete kabietatik oso gertu ibiltzen badira. Harkaizti hauen aisialdirako erabilera erregulatuta dago, beraz, horren inguruko araudia aurretik ikusi eta ikasita izan behar da.

Une honetan Sakanako zeruetan ez ditugu ikusiko, duela hilabete eskas ale helduek zein aurten jaiotako gazteek Afrikarako bidea hartu dute. Urte erdi inguru itxaron beharko dugu hauen silueta berezia berriz ikusteko. Negu amaieran, urtero bezala, Utzubarko EKO gunetik datorren mezuaren zain egongo naiz. Ez dut zalantzarik, bueltan izango dira!

DUELA 25 URTE...



Nafarroako Trikitilari Eguna

Nafarroako hamasei trikiti eskoletako ikasleek bat egin zuten Arbizuko ospakizunean, 200 trikitilari eta pandero jole guztira. Tartean Arbizu, Altsasu eta Olatzagutikoak. Goizeko hamarretan alkateak harrera egin zien eta gosaldutako ondoren taldeak Sakanako hainbat herrietara joan ziren kalejira egitera. Arbizura bueltan, herri bazkarian 400 pertsona elkartu ziren. Bazkaldutako eskola bakoitzeko ikasleek bina pieza jo zituzten. Festa borobiltzeko Gozategiren emanaldia izan zen.



Plazaola, Ultzama eta Sakanako ordezkariak hitzarmena sinatu ondoren. UTZITAKOIA

Turismo jasangarritasun planak badu finantziazioa

Nafarroako Gobernuak eta Sakanako Mankomunitateak hitzarmena sinatu dute. Plazaola, Ultzama eta Sakanan jarduerak egiteko bost milioi euro izanen dituzte, eta zikloturismoa eta jasangarritasuna bultzatuko ditu. Ibarrean lau proiektu eginen dira

ALTSASU

Sakanako Mankomunitateko presidente Aitor Larraza Carre-rak Kultura, Kirol eta Turismo kontseilari Rebeca Esnaola Bermejo hitzarmena sinatu zuten agorriaren 5ean. Lakuntzan egin zen ekitaldian izan ziren ere Cедerna Garalur elkarteko eta Plazaolako Kontsortzio Turistikoko eta Sakanako Garapen Agentzia-ko ordezkariak. Hitzarmenaren bidez Turismo Jasangarritasun Plana helmugetan garatuko da. Planean onartutako proiektuak 2026ko garagarrierako despedituta egon beharko dira.

Esnaola kontseilariak esan zuenez, hitzarmenari esker, “ondare horren inguruan industria turistikoa garatu ahal izango da, errespetuz, planifikatuta, lurraldearekin eta bertako jendearekin koherentea, erresilientea eta iraunkorra izanik”. Plan hori Europako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plane-ko Next Generation funtsak emandako bost milioi euroekin finantzatu da.

Planaren barruan, Sakanan garatzeko egitasmo zehatzekin

batera, beste proiektu batzuk ere sartzen dira; esate baterako, uholdeak prebenitzea, energia eraginkortasuna hobetzeko ekimenak, txirrindularientzako zerbitzu guneen sare bat prestatzea, bidezidor naturalak egokitztea, bisitariak helmugan monitorizatzeko digitalizazioa eta Marketin Digitaleko Plan bat eta Helmugako Irisgarritasun Plan bat egitea.

Sakanako, Plazaolako eta Ultzamako eremuak Espazio Turistikoa Kudeatzeko Unitate

batean sartu ziren, Nafarroako Gobernuak eta toki-erakundeek bultzatuta, sinergiak eta masa kritiko nahikoa lortzeko asmoarekin, Nafarroan helmuga berezia izatearren. Gobernuak turismo arduradunen iritziz, “gaur egun, Plazaola-Sakana-Ultzamaldea eremuak eredu turistikoko lehiakorragoa eta iraunkorragoa eraiki nahi du, gizartearen, ingurumenaren eta ekonomiaren mailan, lurraldearen nortasuna errespetatuz eta horri balioa emanez”.

Sakanako bizikleta bidea

Helmugako bizikleta eskaintza artikulatu eta beste eskualde batzuekin konektatu ahal izango da ibarra. Egitasmoak 2,5 milioi euroko aurrekontua du. Ibarreko erakundeak finantziario lotzen ari dira.



Uharteko aterpea

Futbol zelaiaren eta igerilekuen artean L formako eraikina du. Hura bota eta eraikin berri bat jasoko du udalak. Lanak hainbat fasetan eginen ditu Uharteko Arakilgo Udalak. Aurten hura bota eta eraikin berriaren zimenduak eta lurperatutako instalazioak egitea. Eraitsiko den eraikinak 450 m²-ko azalera du. Lanek 133.852,56 euroko (BEZ barne) aurrekontua dute. Udalak Nafarroako Gobernutik lan horietarako zuzenean 90.000 euro jasoko ditu, EH Bilduk foru aurrekontuari aurkeztutako zuzenketa bati esker. Turismo jasangarritasuneko planak helmugetan deialditik 312.000 euro onartuta daude aterpetxea egiteko. Baina aurrekontua handiagoa da eta udala beste finantziario iturri batzuk lantzen ari da.



Unanuko aparkalekua

Berriin mendiak erakarrira jende asko joaten da Unanura. Turismo presio horrek unanuarrei arazoak sortzen dizkie, ez baitute eskaintzeko nahikoa aparkaleku. Horretarako prest ez dauden bizileku eta eremu naturaletan ibilgailuak ez aparkatzeko, bisitarien alternatiba bat eskaintzea egoki jo du kontzejtuak. Aparkalekua eginda, natur eremuetan motordun ibilgailuen presentzia mugatu nahi du kontzejtuak, natur ingurua babesten lagundu eta hura ez kaltetzeko. Turismo jasangarritasuneko planak helmugetan deialdiaren bidez 35.000 euro jasoko ditu kontzejtuak.



Altsasuko ibilbidea

Usolarrainen eta Dantzalekun dagoen Sakana haritzen lurra ibilbidea berrantolatu egiten da. Interpretazio bide bat da, itsas erabilera duten basoen kudeaketari balioa eman nahi dio. Horregatik, ibilbideak historian zehar izan den baso kudeaketa erakusten du, Albaola fundazioa San Joan baleontziaren erreplika eraikitzen ari da, eta ibilbidea proiektuaren parte da. Asmoa da gaur egun egoera onean ez dagoen eta tarteren batean igarotzea ezinezkoa den ibilbidea berriz diseinatu eta berregitea. Bestetik, ibilbide berrira egokitutako informazio-panelak birjarriko dira, eta bidezidor hori igarotzen den atsedenekua eta askaldegia berrituko dira. Publiko guztiengana iristeko helburuarekin, atsedene gunea tematizatzea planteatzen da, familiendako eta tokikoendako ere erakargarria izanik. Azkenik, tarteren bat desgaitasun desberdinak dituzten pertsonendako egokitzeko aukera aztertuko da. Turismo jasangarritasuneko planak helmugetan programaren bidez 100.000 euro jasoko dira.





Sunsundeguiko enpresaren batzordeak Altsasuko udaletxe parean egin zuen protesta.

Soldatarik ez, eta espedientea bertan

Kontsultarako epea zuzendaritzaren eta langileen akordiorik gabe itxiko da gaur. Sindikatu bat berak ere ez du sinatuko. Langileek ez dute iraileko soldata kobratu eta espediente astelehenean sar liteke indarrean

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Sunsundeguiko aldi baterako enplegu erregulazioko espediente negoziatzeko epea gaur despiditzen da. Enpresa batzordean dauden lau sindikatuek (UGT, LAB, CCOO eta ELA) ez dute espediente sinatuko, ezta haren kontrako inpuñaziorik aurkeztuko ere. Konpromiso hori hartu dute. Langileen ordezkariak espero dute espediente astelehenean indarrean sartzea. Zuzendaritzaren asmoa da ilbeltzaren 19ra arte luzatzea.

Zuzendaritzak dirurik ez da goela esan duenez, espedientearen baldintzak hobetzeko aukerarik ez da izan. Beraz, langileek ez dute Estatuko Enplegu Zerbi-

tzu Publikotik soldataren osagarri jasoko eta hilero kobratzen dutenaren %70a jasoko dute. Espedientearen indarraldia sei hilabete baino gehiago luzatuko balitz, kobratuko luketena soldataren %60a litzateke. Zuzendaritzak oporren %100 bermatuko du, eta aparteko ordainketa, estra, bermatu du.

Protesta

Bitartean, enpresa batzordeko gehiengoak (UGT, LAB eta ELA) deituta, bi protesta bilkura egin dituzte aste honetan. Hainbat langilek bilkura egin zuten enpresaren bulegoen parean asteartean. Hurrengo egunean, berriz, aipatu sindikatuetak

ordezkariak Altsasuko udaletxe parean ordu bat egon ziren kontzentratuta. Protesta horien bidez salatu dute langileek iraileko nomina ez dutela kobratu. Eta, antza, aldi baterako enplegu erregulazioko espediente indarrean sartu arteko egunetako soldata ere ez dute jasoko. Horrek langileak "ekonomia egoera zaillean utzi gaitu, eta hori larritu egingen da aurki aldi baterako enplegu erregulazio espediente indarrean jarriko delako".

Horregatik, enpresa batzordeko gehiengoak Sunsundeguirekin lotura duten eragile guztiei dei egin diete lantegirako "premiazko konponbidea bilatu eta etorkizunerako bideragarritasun

plana egiteko, langileendako eta eskualderako". Dei horren hartzaileak dira enpresako administrazio kontseilua, Nafarroako Gobernu eta Sodena enpresa publikoa.

Aldi berean, enpresa batzordearen gehiengoak "Sunsundeguirendako lan egiten duten enpresa hornitzaile guztiei babesa" adierazi zien, "jakitun baikara zein egoera zaila bizi duten". Nabarmendu zutenenez, "enpresa hornitzaile horiek lantegiaren eta gure industria ehunaren funtzionamenduarendako funtsezkoak dira". Enpresa batzordeko gehiengoak ez du baztertzeko protesta gehiago deitzea.

Azken idatzi horrekin CCOO bat egiten du. Ez, ordea, gainontzeko sindikatuek aurreikusitako mobilizazioekin. CCOOren iritziz, "indarra enpresa barruan egin behar zen, ekoizpena gelditu". Sindikatu horrek, bestalde, Nafarroako Parlamentuan dauden alderdi eta koalizioei gutun bana bidali die. Bertan aukera bat kontuan hartzeko eskatu diete: "enpresa euro baten truke inbertitzaile bati oparitu beharrean, kooperatiba bat edo Lan Sozietate Anonimoa (jabetzaren %51 langileek izatea) sortzea. 2010ean egin ez zena orain egitea". Sindikatutik aitortu dutenez, "zaila da, baina aukera aipatu beharra genuen". Gaineratu dutenez, "Mikel Irujo Amezaga industria kontseilariak 2022ko bilera batean aukera hori proposatu zuen".

"PREMIAZKO KONPONBIDEA BILATU ETA ETORKIZUNERAKO BIDERAGARRITASUN PLANA EGITEKO" DEIA

Aralarko Elkarteak beste eratze batzar bat egingen du

Epaitegiak esan du beti bezala Lakuntzako alkateak izan behar duela presidente

SAKANA
Hauteskundeen ondoren Lakuntzako alkateak Aralarko Elkartearen lehendakari izan eskuordetu eta Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza zinegotziaren esku utzi zuen joan zen udazkenean.

Aralarko Elkarteak batzarra abenduan egin zuen eta hautagaitza onartu zuen. Estatutuaren oinarrituta, Beteluko alkateak Nafarroako Administrazio Auzitegian erabakia inpuñatu zuen. Izan ere, erakundearen ordenantzen

arabera haren lehendakaria Lakuntzako alkatea izan behar da. Auzitegian beteluarri arrazoia eman dio. Epaileen arabera, "udalek bere ordezkariak aukeratu eta horren berri erakundearen Batzar Nagusiari jakinarazi behar diote, Lakuntzak salbu, zeinaren ordezkaria alkatea baita. Kargu hori baita beti Aralarko Elkartearen presidentetza duena. Haren ordezkaria presidenteordea litzateke".

Oihane Uribeetxeberria Garmendiak jakinarazi duenez,

ebazpena onartu eta hilaren 17rako batzar eratzaile berria deitu du. Han gobernu organoak aukeratuko dira berririo eta bera izanen da erakundeko buru. Alkateak gogoratu duenez, "Aralarko Elkartearen estatutuak 1983koak dira. Orduetik legeak eta administrazioa asko aldatu dira. Horretaz ere hitz egin behar dugu Batzar Orokorrean eta Batzar Iraunkorrean". Aldi berean, gogoratu du alkateek gaur egun bere eskumenak delegatzeko aukera badutela.

FESTAK

ARBIZU

XIV. TXISTOR EGUNA

URRIAK 12 Larunbata

20:00 Aatea.

URRIAK 13 Igandea

10:00 Diana Arbizuko fanfarrearekin.

10:30 Azokaren irekiera.

11:00 Nafarroako Trikitilarien Bilkura.

11:30 Pintxo lehiaketaren hasiera. Arbizuko erraldoiak Haizeberri Dultzaineroak taldeak lagunduta.

12:30 Haizeberri Dultzaineroak herrian zehar.

13:00 Sakana Kantuz, plazan.

15:00 Azokaren itxiera.

17:15 Nafarroako Trikitixa Eskolen VII. Jaialdia.

19:00 Xaibor disko festa.



ARTXIBOA

ALTSASU

FERIAK

URRIAK 15 Asteartea

18:30 XXI. Mikologia Jardunaldiak. Hitzaldia: Mikologiaren kudeaketa (barrutiak, parke mikologikoak eta elkarteak), Saskia Elkartearen eskutik (gaztelaniaz), Iortia kultur gunean.

URRIAK 16 Asteazkena

18:30 XXI. Mikologia Jardunaldiak. Hitzaldia: Ziza posoitsuak Nafarroan, Manolo Becerraren eskutik (gaztelaniaz), Iortia kultur gunean.

URRIAK 18 ostirala

18:00-20:00 Haurrendako jolasak, Foru plazan.

Altsasuko peñek antolatuta.

18:00 Remonte jaialdia, Burunda frontoian.

Oriamendik antolatuta.

19:30 Sakanako XI. Arte Azokaren mustutzea, Iortia kultur gunean. Artebidek antolatuta.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 11

ALTSASU Gazte agenda.

Mural margoketa.

17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Txapelketa.

Botxa txapelketa, Iratxo elkarteak antolatuta.

18:30 Florentino - Mikel /

Miren - Igor

19:15 Manik - Maider /

Xabier - Geaxi

LAKUNTZA Aurkezpena.

Altsasuko Gazte Topagune Sozialistaren aurkezpena.

16:30 Mus txapelketa (izena emateko: 638 191 896, 5 euro); saria: Gazte Topagune Sozialistarako bi sarrera.

18:30 Aurkezpena.

19:00 Pintxopotea.

ETXARRI ARANATZ Astotariko

Sakana jardunaldiak.

Askotariko Sakana. Aniztasuna erein jardunaldiak: LGTBI-fobia kirolean errealitate bat da dokumentalaren emanaldia eta mahai ingurua: Olaia Eizagirre Sagastibeltza palista eta entrenatzailea, Iñaki Rubio Mendoza kazetaria eta Bea Sever Naizen adingabe transexualen familien elkarte. Dinamizatzailea: Amets Castrejana Berdintasun aholkularia kirol eremuan, feminista eta LGTBIG+ aktibista. Euskaraz.

18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Hitzaldia.

1934ko iraultzaren 90. urteurrena.

Oroimena borrokan eraiki jardunaldiak, Sakanako Kontseilu Sozialistak antolatuta. 1934ko iraultza Altsasun eta Euskal Herrian, losu Chuecaren hitzaldia.

18:30ean, Gure Etxean.

ALTSASU Hitzaldia.

Tren sozialaren alde, AHTrik ez! Altsasu y el tren, pasado y futuro EHBilduren hitzaldia: Ainize Ibargutxi, losu Imaz eta Kutxo Calleirasekin. 18:30ean, Iortia kultur gunean.

LARUNBATA 12

IRURTZUN Mendi irteera.

Iratxo elkartearen mendi irteera:

Belate – Beruete.

07:00etan, Matxainen.

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Batuekoko iturburua, 37 kilometro.

08:30ean, Zumalakarregi plazan.

BAKAIKU Topaketa.

VII. Katxarro Eguna Klasikoen Topaketa, Bakarrekoeitza elkarteak antolatuta, Katxarros de maderaren laguntzarekin.

10:00-13:00 Klasikoen topaketa.

11:30 Parte hartzaileendako luntxa.

12:00 Sakanatik ibilbidea.

14:30 Bazkaria, elkartearen.

ALTSASU Tailerra.

Ongi zaintzen eta maitatzen ikastea tailerra, Kontxi Lopez Soriaren eskutik, Emai, Altsasuko Emakumeen Ahduntzerako Gunearen programaren barruan. Gaztelaniaz.

10:00etatik 13:00etara, Gure Etxean.

ALTSASU Omenaldia.

1934ko iraultzaren 90. urteurrena.

Oroimena borrokan eraiki jardunaldiak, Sakanako Kontseilu Sozialistak antolatuta. Emilio Iguzkiza eta gainontzeko eroriei omenaldia.

13:00etan, Gartzia Ximenez kaleko oroigarrian.

ALTSASU Gazte agenda.

Mural margoketa.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Joker: Folie à deux

Igandea 13 19:30

Astelehena 14 19:00

Liztor Kapitaina euskaraz

Igandea 13 17:00

The Miracle Club

Osteguna 17 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Los destellos

Igandea 13 19:45

17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Antzerkia.

Deadpan Karaoke Ibutrofeno konpainiaren antzezlanaren emanaldia: Umore, musika eta kritika soziala uztartzen dituen antzezlan berritzaile bat da, Marian Bañobrek interpretatutako bakarkako saio batean. Sarrerak: 6 euro.

19:30ean, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 13

IRAÑETA Mendi ibilaldia.

Berriain mendian dagoen Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldia, Iratxo Elkarteak, Sakanako Mendizaleak, Altsasuko Mendigoizaleak, Orhi Mendi Taldeak, Euskal Mendizale Federazioak, Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak, Gure Eskuk, Gu ere bai! taldeak eta Irañetako Udalak antolatuta eta lagunduta.

09:30 Irteera, Irañetako bordatik.

11:30 Ekitaldia, Euskal Herriko Erdigunean.

13:30 Pintxopotea, Irañetako bordan.

14:30 Bazkaria, Irañetako bordan.

ZORION AGURRAK



June Etxegoien Zelaia Zorionak maitia, egun ederra pasa ezazu! Maitte zaitugu, zure amona eta aitona.




ALTSASU Artekleta. Bizikletari bide: jasangarritasuna, artea eta Sakana. Sakanako artistek bizikletekin egindako artelanen erakusketa. Altsasu BHLn.



ALTSASU Yolanda Arnedo dekorazio tailerraren lanak.

Urriaren 13ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna baino ordu bat lehenago eta igandetan 18:30etik 19:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.



IRURTZUN Erakusketa kolektiboa: Doris Vicente, Agus Lizarraga eta Luisa Aldaburu margolarien lanen erakusketa. Urriaren 31ra arte. Pikuxar tabernan.

ETXARRI ARANATZ Erakusketa.

Ziza eta landareen erakusketa. Bixente Garziandia Barce, Domingo Garciandia, Jose Luis Eserverri eta Fernando Goyarri omenaldia. Pintxo dastaketa Derry, Lekuona eta Xapatero tabernek prestatuta. Harzabal elkarte eta Mikologi eta Landarien taldea, Larrañeta Elkarte mende taldearen, Etxarri Aranazko udalaren, Goierriko zuraren eta Insalusen laguntzarekin. **Goizean zehar, plazan.**

ALTSASU Ekitaldia.

Harri Herri. Iraganetik etorkizunera ekitaldia. Gararen 25 urteurrenaren harira harria jartzea.

12:30 Ekitaldia, San Pedron.

14:30 Bazkaria (tiketak 20 euro, Lezean eta Arkangoan), lortia zabalgunean.

ALTSASU Gazte agenda.

Mural margoketa.

17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Antzerkia.

Marea baja Pez Limbo konpainiaren antzeulanaren emanaldia: Azken aldiz errautsetatik birsortzen diren bi fenix hegazti. Bi gizon beren suizida sena zapaltzen beren edukazioagatik. Bi aktore kezkatuta dauden plantak egiten. Sendaberri programaren barruan. Sarrerak: 6 euro. **19:00etan, kultur etxean.**

ASTELEHENA 14**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Txapelketa

Botxa txapelketa, Iratxo elkarteak antolatuta.

18:00etatik aurrera, Botxa zelaian.

ASTEARTEA 15**ALTSASU Tailerra.**

Kafe konpondu: etxetresna elektrikoak eta beste hainbat gauza konpontzen ikasteko tailerra. Doakoa. Izena ematea: sakana@cederna.es, urriaren 6ra arte.

17:30etik 19:30era, Gure Etxean.

IRURTZUN Txapelketa.

Botxa txapelketaren finalak, Iratxo elkarteak antolatuta.

17:00etatik aurrera, Botxa zelaian.

ASTEAZKENA 16**OLATZAGUTIA Tailerra.**

Lo desconocido. Biblioteca humana, lee los libros humanos que tienen mucho que contar, aurreiritzien

inguruko tailerra, Bakea eta bizikidetzaren lantzen duten liburutegiak programaren barruan. **18:00etan, liburutegian.**

UHARTE ARAKIL Aurkezpena.

Sakanako Mankomunitateko Kirol zerbitzuaren Sakanako Jarduera Fisikoaren orientazio zerbitzuaren aurkezpena.

18:15ean, jubilatuen elkarteetan.

IRURTZUN Irakurle taldea.

Pikuxarreko irakurle taldea: Ana Malagon idazlearen *Ez dakit zertaz ari zaren* liburua.

19:00etan, Pikuxar elkarteetan.

OSTEGUNA 17**ETXARRI ARANATZ Tailerra.**

Zientzia eta teknologia tailerrak. Zientzia eta teknologiari buruz gazteek dituzten aurreiritziak baztertu dituzte, eta gai horiekin erlazioatutako esperimenduak ikusteko eta egiteko aukera izango dute. Etxarri Aranazko liburutegiak Elhuyar elkartearekin batera, eta Nafarroako Liburutegien Sarearen laguntzarekin antolatuta; Sakanako emakume zientzialarien eskutik. 7 eta 10 urte bitarteko haurrendako. Izena ematea: 948 461 181 edo biblietx@navarra.es. **18:30etik 20:00etara, liburutegian.**

JAIOTZAK

• **Ian Andres Ortiz Mendez,** irailaren 30ean Etxarri Aranatzen.

EZKONTZAK

• **Etor Alegria Reparaz eta Myriam Ibarra Iriarte,** urriaren 5ean Lakuntzan.
• **Nerea Pazos Arbizu eta Unai Vazquez Agorreta,** urriaren 5ean Lakuntzan.
• **Rebeka Mendoza Caro eta Urko Agirre Gabirondo,** urriaren 5ean Iturmendin.

HERIOTZAK

• **Juan Luis Gastaminza Lecuona,** urriaren 4an Arbuzun.
• **Jose Ignacio Lizarraga Artola,** urriaren 3an Dorraon
• **Mari Carmen Clemente Moros,** irailaren 28an Irurtzunen.
• **Jose Antonio Elustondo Asiain,** urriaren 1ean Irurtzunen

IRAGARKI SAILKATUAK**LANA/NEGOZIOAK****LAN ESKAINTZA**

Irurtzango PIKUXAR tabernak zerbitzaria bilatzen du: txandakako asteburuetan lan egiteko. Esperientzia balartuko da. Euskara ezinbestekoa. Interesa dutenek CVA tabernan utzi edo pikutaberna@gmail.com helbide elektronikora bidali.

Mank-en lan egiteko aisialdiko begirale eta kirol monitorea lan politzak osatu nahi dira: Bi deialditan parte hartzeko C1 euskara maila beharrezkoa izango da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

IKASTAROA

Indar tailerra emakumeentzat: Azaroaren 5ean Ziordin eta azaroaren 29an Uharre Arakilen. Informazio gehiago eta izen emateak kirolak@sakana-mank.eus edo 610 812 888 telefonon.

Gimnasia terapeutikoa fibromialgia eta Neke Kronikoa dutenentzako: Osasuna hobetzeko jarduerak fisiko espezifikokoak egingo dira ikastaroak Altsasun, Etxarri eta Irurtzunen. Informazio gehiago eta izen emateak Sakanako Mankomunitatean (948 464 866) edo AFINAN (948 135 333) telefonoetan. Emailaz kirolak@sakana-mank.eus helbidera idatziz.

Lakuntzan ikasturteko ikastaro eskaintza heldu eta gazteentzako: Hainbat erakundek antolatzen dituzten ikastaro eta tailerretan izena emateko haiekin jarri behar da harremanetan, edonola ere eskaintza guztien berri www.lakuntza.eus web orrian ikusi daitezke.

Pintura ikastaroa Olaztin: Udalak antolatutako ikastaroaren inguruko informazioa eta inskripzioa www.olazti.com web orrian edo udaletxean

OPATUTAKOAK

Irailaren 13an Txureregian aurkitutako betaurrekoak: Txurregi mendian aurkitu nituen betaurreko graduatuak Irurtzango udaletxean utzi ditut, galdu dituenak han aurkitu ditzake.

Etxarri Aranazko udaletxearen estalopean Wilson markako tenis raketa baten funda beltza opatuta: Irratian dago.

Etxarri Aranatzen 6 giltza aurkitu dituzte: *Hotsein!* Giltzarrapo batean, gomazko bi panpin txikirekin batera. Irratian daude.

OHARRAK

Lakuntzako entitateendako Udalaren dirulaguntza deialdia zabalik: Laguntzak eskuratzeko baldintzak dira jarduerak herritar guztiendako zabalik egotea, hezkuntzaren edota gizarte, kirol eta kulturaren aldetik interesgarriak izatea, herritarren harremanak eta elkarbizitza, hautapen libre eta garapen pertsonala sustatzea eta udalaren beste laguntza-lerro batean sarturik ez egotea. Deialdiaren oinarriak eta dokumentazioarekin batera aurkeztu beharreko eskabide ereduak www.lakuntza.eus webgunean dago. Eskakerak urriaren 4ra arte aurkez daitezke.

Arbizuko Utzubar Ekogunean konposta eskuragarri: Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorarazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan. Informazio gehiago nahi duenak hondakinak@sakana-mank.eus e-postara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

Euskara ikastaro teknikoak egiteko dirulaguntzak: Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, atzera ere, ikasketa ofizialak eta aratuak ez diren ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi edo gisakoetan parte hartu duten herritarrei dirulaguntza emateko deialdia zabaldu du. Joan zen urteko azaroaren 1etik aurtengo abenduaren 31ra bitarteko ikastaroen matrikulak. Beti ere, edozein gairi buruz euskaraz egindakoak badira, aisialdiko monitorea edo zuzendari izateko euskarazko ikastaroak barne. Horiez aparte, euskararen edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo soziolinguistikarekin zerikusia dutenak ere lagunduko ditu. Laguntzatik kanpo geldituko dira egoitza eta kilometraje gastuak. Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, aurtengo abenduaren 31rako bukatuta ez dauden ikastaroen kasuan, gutxienez %80ko asistentzia eskatuko die parte hartzaileei data horretarako. Deialdiari buruzko informazio guztia [sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) webgunean.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera **Elkartasun Aktiboa inizatiba martxan jarri du:** Netanyahu nazioarteko epailean aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpen ekonomikoak egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrantean diru sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu edo 08737 kodea erabilita dirua eman.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 32 85 93.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotiluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotiluzioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotilua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museoan bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoan ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Astearteko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
• GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

• Etxebizitza Saldu/Errentan.
• Lokalak Saldu/Errentan.
• Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
• Salmentak, erosketak eta trukeak.

• Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
• Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
• Epea: aste bereko astearteko 13:00ra arte.

BAZKIDE ZOZKETA

Iraileko saridunak

1. SARIA
Pedro Mari Ruiz Bordegarai (Lakuntza)

2. eta 3. SARIAK
M. Eugenia Ayerdi Gonzalo (Olazti)
Lakuntzako Udala
Nerea Ganuza Unanua (Hiriberri Arakil)





OROIGARRIA

**Benigno Mendia
Goikoetxea**IX. urteurrena
(Urriaren 10ean)Beti gure bihotzetan
Ez gara zutaz ahazten**Familia**
Urdiain

ESKELA

**Inazio
Lizarraga Artola**Ahazten ez dena ez da sekula hilko.
Beti egongo zara gurekin**Ttormoin familia**

ESKELA

**Juan Luis
Gastaminza
Lecuona**

(Urriaren 4an hil zen 67 urte zituela)

Familiak une hauetan jasotako babes eta
maitasun guztia eskertu nahi du**Etxekoak**
Gastaminza-Lecuona eta Jaca-Berastegui familiak
Olazti-Arbizu

ESKELA

**Juan Luis
Gastaminza
Lecuona**

(Urriaren 4an hil zen 67 urte zituela)


Asko maite zaitugu Aittuna

Zure bilobak Lierni, Jule eta Eunate
Olazti-Arbizu

ESKELA

**Juan Luis
Gastaminza**Ta elkartuko gara berriro,
gure betiko lekuetan,
zabalduko ditugu besoak,
besarkatuz gure arimak.**Oihana, Jone eta Lorearen lagunak**

ESKELA

**Miguel
Erviti Fernandez**

'Gayolo'

Egiarretan, 2024ko urriaren 7an zendu da 40 urterekin

Futbol taldeko lagunaren artean izanen zara beti.
Partidarik ez dizugu agintzen, baña afari baten
bueltan elkartu eta eginen dugu topa zure alde!
Faltan botako zaitugu.

Besarkadarik beroena gertukoei.

Futboleko lagunak

ESKELA

**Miguel
Erviti Fernandez**

'Gayolo'

(40 urterekin hil zen, Egiarretan)

Pilota partidak ez dira gauza bera izanen.
Ahaleginduko gara zure hutsuneak ez dezan
jokoan gehiegi eragin.

Besarkada bat, lagun. Senideei muxurik beroena.

Pilota partidetako lagunak

ESKELA

**Miguel
Erviti Fernández**

—Goian bego—

Une latz hauetan familiarekin
bat egiten dugu.

Besarkada handi bat

Atakondoa ikastetxeko Hezkuntza komunitatea**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**

edo eskelak@guaixe.eus

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”☎ 948 19 70 70
📧 @Grupolrache
📱 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

EMAKUME PREFERENTEA

4. JARDUNALDIKO EMAITZA

Universidad de Navarra - Altsasu 2-6

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1	Altsasu	12
2	Gazte Berriak	6

HURRENGOA

URRIAK 19, LARUNBATA

12:30 Altsasu - Gares (Dantzaleku)

Altsasuren bolada onak segida du

Altsasu lidergoa sendotzen ari da. Asteburuan ez dago jardunaldirik.

GIZON ERREGIONALA

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Lagun Artea	5-0
Etxarri Aranatz - Rotxapea B	2-0

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	San Jorge	12
2	Altsasu	12
3	Etxarri Aranatz	10
12	Lagun Artea	5

HURRENGO JARDUNALDIA

URRIAK 12, LARUNBATA

16:30 Lagun - Univ. Navarra (Zelai Berr)

18:00 Beti Onak B - Altsasu (Atarrabia)

URRIAK 13, IGANDEA

19:00 Amaya - Etxarri A. (Amaya)

Derbiko puntuak, Dantzalekun

Dantzalekuk Altsasuren eta Lagun Artearen derbia hartu zuen. Nahiz eta bi taldeak parez pare hasi, Altsasuk agintea hartu zuen, eta, azkenean, garaipen sendoa lortu (5-0). Goiko postuetan dago Altsasu, eta bihar Beti Onak izango du aurkari. Lagun Arteak Universidad de Navarra hartuko du.

Etxarri, sendo

Etxarri Aranatzek bide onean jarraitzen du. Rotxapearen kontra denboraldiko hirugarren garaipena lortu eta gero, bide beretik jarraitu nahi du igandean Iruñean Amayaren kontra jokatu duen partidari.

ARETO FUTBOLA Aralar Mendi, Arbizu, Altsasu eta Xotaren asteburua

Hirugarren mailan Aralar Mendik 6-4 galdu zuen Cintruenigoren kontra. Asteburuan ez dago jardunaldirik. Lehen Autonomikoan Altsasuk Ribera de Navarraren kontra 5-3 irabazi zuen, eta Arbizuk Los Saucesen kontra 4-3 galdu. Larunbatean Arbizuk Mendialdea hartuko du, eta Altsasuk Mutilbera izango du aurkari. Emakumeen lehen senior mailan Xotak Orvina liderraren kontra 1-4 galdu zuen. Igandean Cortesen kontra jokatu du, 11:30ean, Erriberan.

Ezkurdia, kaiolako final laurdenen txartelaren bila

PILOTA Lau eta Erdiko hiru txapela ditu Joseba Ezkurdiak eta 2024ko txapelaren borrokan sartu nahi du. Horretarako, Lekunberriko final zortzirenetan Iñaki Artola gainditu beharko du. Artolak gaur erabakiko du jokatzeko moduan dagoen ala ez

M.B.G. ARBIZU

Asteburuan 2024ko Lau eta Erdiko Txapelketa hasiko da. Joseba Ezkurdia eta Iñaki Artola igandean Lekunberriko Jaian Jai pilotalekuko final zortzirenetan lehiatuko dira. Irabazleak txapelketan aurrera jarraituko du, final laurdenetako ligaxkarako sailkatuz.

Ezkurdiaren eta Artolaren artean egon daitezke, Artolak ez baitu azken unera arte erabakiko jokatzeko moduan dagoen ala ez. Fisioak egoki ikusten badu gaur, ostiralean, "frontoian proba txukun bat" egiteko asmoa du. "Han hartuko dut behin betiko erabakia". Nolanahi ere, asteartean pilota aukeraketan izan zen Ezkurdiarekin batera.

Ezkurdiak Artolak jokatu duela uste du. "Bitartean, ni nire a egiten ari naiz, Lekunberri ahalik eta hobekien iritsi, eta sentsazio onekin jokatzeko. Nirean zentratuta nago, ea gero zer pasatzen den".



Zabaleta eta Peña, CaixaBank Masterseko txapeldun. IÑAKI PORTO

Zabaletaren mastersa

Jose Javier Zabaletak jotzaileen errege izaten jarraitzen duela erakutsi zuen CaixaBank Masterseko finalean. Peñarekin batera, 13-22 irabazi zieten Altunari eta Iztuetari. Zabaleta maisuki aritu zen, eta txapela lortzeko gakoa izan zen. Bere bigarren Mastersa lortu du.



UTZITAKOA

Iker Gomez, garaipenarekin agur

TXIRRINDULARITZA Iker Gomez (Quesos Albeniz) goitik despeditu du junior maila, igandean Atarrabiako Udalaren Saria irabazita. Gainera, bere taldea, Quesos Albeniz-Burunda, talderik onena izan zen. Iker Gomezek sekulako denboraldia egin du. Guztira

hamahiru garaipen lortu ditu, tartean Baroneko taldekako erlojupekoa, Espainiako selekzioarekin. Gomezek junior mailako Nafarroako Challengea irabazi du (865 puntu). Eñaut Oiarbide 5. sailkatu da, Ekain Imaz 6., Ekaitz Perez 13., eta Iker Begiristain 15.



Maite Beregaña, hirugarren. IÑAKI PORTO

ATLETISMOA Beregaña eta Garcia ikusgarri Orreaga-Zubirin

Urriaren 6an jokatu zen XVII. Orreaga-Zubiri maratoni erdia. 1.000 korrikalariren artean Hodei Lujanbio goizuetarra izan zen txapelduna (1:19:44). Sergio Garcia de Eulate altsasuarra laugarren izan zen (1:25:15), podiumetik 3 segundo eskasera. Emakumezkoetan Ana Perez de Ziriza gailendu zen (1:42:41), eta Maite Beregaña uharte arakildarra hirugarren sartu zen (1:43:17).



Iaz ez zen Onddo Lasterketa jokatu.

ATLETISMOA Altsasuko ferietako Onddo Lasterketa bueltan da

Joan zen urtean ez zen Onddo Lasterketa jokatu, Dantzaleku Sakana Atletismo klubak Altsasuko Udalarekin aurrekontuen kontura izandako aferarengatik. Aurten, bueltan da. Urriaren 19an XV. edizioa jokatu du. 10:30ean oinezko martxa abiatuko da, 11:00etan korrikako proba (7 km) eta 12:00etan 43. Eskola Krosa. Izena ematea zabalik dago Dantzaleku Sakana webgunean.



Gaztelumendi, Ruiz, Beraza, Montañes, Arangoa, Jimenez eta Goldarazena.

Euskal Herriko Erdigunera, euskal lurraldetasuna aldarrikatzera

MENDIA Federacion Vasco Navarra de Alpinismoren sorreraren mendeurrena ardatz, Beriaingo Olibesarion kokatuta dagoen Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldia deitu dute igandean, zazpi probintzien batasuna aldarrikatzeko. Irañetako bordan jarraituko du festak

Maidar Betelu Ganboa IRAÑETA / SAKANA Igandean Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldia deitu dute berderatzi talde eta entitatek. As-tehenean aurkeztu zuten ekimena Irañetan, eta bertan ziren Mikel Goldarazena (Iratxo mendi elkarte), Pello Ruiz (Sakanako Mendizaleak), Martin Montañes (Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioa), Patxi Gaztelumendi (Gu ere bai!), Unai Jimenez (Gure Esku), Iñaki Arangoa Irañetako alkatea eta Floren Beraza antolakuntzako kidea. Haiekin batera Altsasuko Mendigoizaleak, Orhi Atarratzeko mendi taldeak eta Euskal Mendizale Federazioak antolatu dute eguna. "Euskal Herriko zazpi probintzietako mendi klub eta federazioek antolatu dugu Erdigunera ibilaldia, lurraldetasuna aldarrikatzeko" azaldu zuen Goldarazena.

Euskal Herriko Erdigunea Beriaindik gertu, Andimendi mendilerroko Olibesario sarioan dago, 1.236 metrotan. "Felix Isasa ingeniariak egin zuen kalkulua, barizentroaren kontzeptuan oinarrituta. Leku polita da, ikusgarria". Aspaldi hasi ziren Erdigunera Ibilaldia antolatzen. "Aurten, Federacion Vasco Navarra de Alpinismo (FVNA) sortu zela mendeurrena ospatzen ari gara, eta testuinguru horretan kokatu dugu Erdiguneko Ibilaldia". Aldarrikapena argia da. "Egun lurraldetasuna bigarren maila batean utzita dagoe-

"IGANDEAN ZAZPI PROBINTZIA GARELA ALDARRIKATUKO DUGU OZEN"
MIKEL GOLDARAZENA

la iruditzen zaigu, eta kirolaren arloan nolabaiteko asimilazio bat dagoela Espainiako eta Frantziako selekzioekin. Kontrapisua izan nahi dugu, eta igandean zazpi probintzia garelako aldarrikatuko dugu ozen. Nafarroako Mendi Federazioak eta Euskal Mendi Federazioak pauso bat eman dute elkartze aldera, eta bide horretan segituko dugu".

Igandeko ekitaldia

Igandean Senosiaingo adarra 8:45ean abiatuko da erdigunerrantz, eta Irañetako Bordakoa 9:30ean. Erdiguneko ekitaldia 11:30ean hasiko da, eta Felix Isasa zenaren seme Xabik, bi mendi federazioko ordezkariak eta Gu ere bai! eta Gure Esku taldeetakoek hartuko dute hitza. Irañetako Bordan pintxo potea egongo da, eta ondoren bazkaria, Lakuntzako baba txikiak. Baz-

kalondoan, nobedade gisa, Ehun Mendietako Mendizaleen Anaidiko diplomak banatuko dira.

Euskal Herriko Mendi Biltzarra Nafarroako federazioko presidente Martin Montañesek Euskal Herriko Mendi Biltzarra elkarte sortu berri dutela nabarmendu zuen. "Bi mendi federazioek sortu dugu, elkarrekin zenbait ekitaldi eta txapelketa antolatzeko: Euskal Mendizaleen Gala, Besaideko Oroimen Eguna, Euskal Herriko Erdiguneko Ibilaldia, abenduko Aralarko Mendigoizale Eguna... Elkarlanean pausoak ematea da helburua".

'Gu ere bai!'

Patxi Gaztelumendik kirolak gure gizartean "sekulako garrantzia" duela gaineratu zuen. "Gure koloreak defendatzeko eta nazioartean ofizialtasunez aritzeko eskubidea defendatzen dugu, baina parte hartzen ere ez digute uzten". Horregatik, euskal mendizaleasuna zoriondu nahi izan zuen, "Nafarroako Mendi Federazioak eta Euskal Mendi Federazioak mendeurrena ospatzeko eta elkarte berria sortzeko elkarrekin egin duten bidea, dauden aukera legalak eta baliabideak hartuta, eredu-garria baita, urrats garrantzitsua". Igandean Euskal Herriko Erdigunera batzeko deia egin zuen, eta bertara "gure ikurrak" eramateko gonbita egin zuen.

Gure Eskuko Unai Jimenezek azpimarratu zuenez, "agerian geratzen da erabakitze esku-bidea eta burujabetza edozein esparrutan aldarrikatu behar dugula, baldin eta herri libre bat izan nahi badugu".

Erdiguneko lau panelak

Euskal Herriko Erdigunea markatuta ez dagoenez, Irañetako Bordan, Ihabarren, Unanun eta Senosiainen panel informatiboak jarriko dira. "QR kode bat izango dute, hura sakatuta Erdigunearen informazio osoa jasotzeko" azaldu zuen Floren Berazak. Udalek eta kontzejuek hartuko dute kostua bere gain, eta azarorako jarri nahiko lituzkete.

"ERDIGUNERA BATZEN GARA; GURE IKURRAK ERAMATEKO GONBITA EGITEN DUGU"

PATXI GAZTELUMENDI



"Federazioen arteko sintonia erabatekoa da"

MARTIN MONTAÑES
NAFARROAKO FEDERAZIOA

Federacion Vasco Navarra de Alpinismoren (FVNA) mendeurrenako ospakizunetan zaudete oraindik.

Bai, eta Euskal Herriko Erdigunera Ibilaldia ospakizun horietan kokatzen dugu. Beraz, igandean bertara, Sakanara, hurbiltzeko deia egiten dugu. Ildo honetan, Nafarroako Mendi Federazioaren eta Euskal Mendi Federazioaren arteko sintonia erabatekoa da. Bion artean lan taldea antolatu dugu mendeurrenako ekitaldiak antolatzeko, eta bide berean goaz, sortu berri dugun Euskal Herriko Mendi Biltzarrak erakusten duen bezala.

Zer moduz joan dira antolatutako ekitaldiak?

Oso ongi, erantzun masiboak izan dute, erakusketak, Euskal Herriko zazpi gailur altuenen igoerak eta 100 mendi igoerak bereziki. Elgetako maiatzeko ekitaldi instituzionala ere pozgarria izan zen. Erdiguneko martxa, Pyrenaicako mendeurrenako monografikoa, bukatzean dagoen dokumentala eta Mendi Film Festibaleko omenaldia geratzen zaizkigu, festibalak bi mendi federazioak omenduko dituelako. Urrian Euskal Mendizaleen Gala izango da, eta abenduaren 22an, Mendigoizale Eguna Aralarren.



Eneritz Karasatorre, bigarren emakumea, helmugara iristen, alboan David Oroz duela.



Ion Sola eta Ekhi Congil, helmugan.

Etxarriarrak, iaz baino gorago

MENDI LASTERKETAK Etxarri Aranazko 49.Mendira Joan Etorrian Ion Sola eta Irene Artazkoz gailendu ziren, Ekhi Congil eta Eneritz Karasatorre etxarriarren aurretik. 109 korrikalarik hartu zuten parte giro bikainean jokaturako proban

M.B.G. ETXARRI ARANATZ

Giro ederrean eta eguraldia lagun jokatu zen Etxarri Aranazko 49. Mendira Joan Etorria. Udaberri elkarteak antolatutako lasterketa 109 korrikalarik osatu zuten. Aspaldiko apustueta oinarritutako lasterketa bere horretan mantentzen da: Etxarri Aranazko plazatik abiatuta, Hartzabalera igotzea zen erronka, Maiatza jartzen den tokira, eta berriro herrira jaistea, 10 km eta 572 m desnibel + osatuta. Etxarri Aranazko feriak izaki, plaza beteta zegoen, eta ikusleentzako zaparradaz lagunduta iritsi ziren korrikalariak plazako helmugara.

Intentsitate handikoa

Etxarriko lasterketa "laburra baina esplosiboa" dela diote korrikalariak. Arreko Ion Sola Torralba izan zen garailea (46:32),

Ekhi Congil etxarriarraren (47:33) eta Lekunberriko Iñigo Lasarteren (49:11) aurretik. Sola ez zen 2001 urtean Juan Mari Garinek ezarritako errekorra (42:50) hurbildu, baina bere bigarren garaipena lortu zuen Etxarrin, duela bi urte ere txapeldun izan baitzen. Aritz Munarriz etxarriarra podiumera sartzear geratu zen, laugarren (49:16). Hasieran Thibautekin eta Vegasekin taldetxo osatu zuten, baina mendira heltzerakoan tartea atera zuen Solak. "Lasterketa motza da, baina intentsitate handikoa, denetarik

ION SOLAK DUELA BI URTEKO GARAIPENA BERRITU ZUEN, ETA IRENE ARTAZKOZEK EZ ZUEN ARERIORIK IZAN

duena: pistako zati azkarra, eta mendiko zati teknikoa".

Emakumezkoetan, Irene Artazkoz iruindarrak ez zuen areriorik izan (57:19) eta 7 minutu pasa atera zizkion Eneritz Karasatorre etxarriarrari (1:04:07). Berriozarko Aurkene Arocak (1:04:16) osatu zuen podiuma. Aizea Beraza uharte arakildarra laugarren sailkatu zen (1:05:35). Maria Ordoñezek 2022an ezarritako errekorra (51:28), eta Artazkoz ere markatik urruti sailkatu zen. Nolanahi ere, pozik zegoen, asko disfrutatu zuela aitortu zuen, eta lasterketan dagoen giro ederra nabarmendu zuen.

Beteranoen artean Sergio Serrano idiazabaldarra (52:50, sailkapenean zortzigarren), eta Castañedoko Inmaculada Pereiro (1:05:43, emakumezkoen artean bosgarrena) izan ziren onenak.

Sakandarrak

49. Mendira Joan Etorria

Gizonak

1. Ion Sola	46:32
2. Ekhi Congil	47:33
4. Aritz Munarriz	49:16
11. Garikoitz Maiza	54:20
13. Beñat Anda	55:22
14. Andoni Goikoetxea	55:28
16. Ander Galarza	56:00
19. Martxel Etxeberria	57:08
22. Jon Mendia	57:22
23. Jesus Goena	57:30
26. Joxeja Maiza	58:20
27. Ioseba Iza	58:34
28. Ibai Perez	59:22
32. Asier Gartzandia	1:00:06
35. Ivan Lopez de Sabando	1:00:27
36. Iraitz Goñi	1:00:30
37. Lier Verdugo	1:00:31
38. Kepa Gordo	1:00:46
39. Carlos Mañeru	1:00:52
40. Victor Fernandez	1:01:01
41. Ibon Ubeda	1:01:06
45. Jon Orella	1:01:57
48. Roberto Ziordia	1:02:22
49. Pello Uncilla	1:02:35
50. Bernardo Garzandia	1:02:37

Herrikoia

Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorria lasterketa herrikoia da eta hala izaten jarraitu nahi du. Hori da, hain zuzen ere, probaren helburu nagusietako bat, bertakoak proban lehiatzea. Guztira 49 sakandarrek osatu zuten proba, etxarriar asko tartean, herritarren gozameneko. Lehen sakandarrak Ekhi Congil eta Eneritz Karasatorre etxarriarrak izan ziren. Congilek iazko denbora 2 minutu pasa hobetu zuen (iaz 49:46, aurten 47:33), eta Eneritz Karasatorrek iaz baino segundo batzuk gehiagotan osatu zuen proba (iaz 1:03:58, aurten 1:04:07) baina aurten bigarrena sailkatu zen, eta iaz hirugarrena.

Antolakuntza pozik zegoen probak izandako jarraipenarekin, eta datorren urterako data borobila ospatuko dutela gogoratu zuten: 50. edizioa.

52. Juan Larrea	1:02:53
53. Adrian Claver	1:02:54
54. Iker Sanchez	1:02:54
58. David Oroz	1:04:06
61. Josean Salgado	1:04:50
63. Jon Igoa	1:05:31
64. Jon Zabaleta	1:05:35
70. Araitz Jaka	1:06:29
75. Oihan Artieda	1:07:34
76. Aimar Araña	1:07:44
78. Miteku Jaka	1:08:17
80. Iban Verdugo	1:08:42
84. Kevin Rai Sanchez	1:09:08
87. Raul Lage	1:09:29
89. Ruben Araña	1:09:47
91. Ismael L. De Goikoetxea	1:10:16
98. Aritz Irigoien	1:12:03
108. Kimetz Arregi	1:29:16

Emakumeak

21. Irene Artazkoz	57:19
59. Eneritz Karasatorre	1:04:07
65. Aizea Beraza	1:05:35
85. Leire Igea	1:09:23
93. Larratiz Tejedor	1:10:39
94. Sarabe Arakama	1:10:39
99. Erkuden S. Martin	1:12:04
104. Inge Zelaia	1:22:48



Saritutako guztiak, Etxarri Aranazko plazako kioskoan.



Delfin Goikoetxea iturmendiarrak Alpine PRM Proto autoarekin parte hartu zuen, eta herritarren babes handia izan zuen.

Ordokik agindu zuen Urbasan

AUTOMOBILISMOA Ez zen sorpresarik izan, eta iazko irabazle Arkaitz Ordokik lortu zuen XLII. Urbasako Igoeran azkarrena izatea. Iker Palacios lakuntzarra hirugarren izan zen, Daniel Jimenez bigarrenarekin lehia estua izan eta gero. Zaleek ederki gozatu zuten

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI Sakana Motorsport eskuderiak antolatuta, 42. Urbasako Igoera jokatu zen aurreko larunbatean. Aurten ordu bat aurreratu zen proba, 12:00etara. Agian lehen orduan ez zen horrenbesteko ikusle pilaketarik izan; entrenamenduak bukatuta hasi zen zale gehiago ikusten. 103 pilotuk hartu zuten parte, eta, beti bezala, gidariek euren onena eman zuten probak zituen 5,3 kilometro eta 39 bihurguneetan, erakustaldia eginez. 82 pilotuk lortu zuten proba bukatzea.

Ez zen sorpresarik egon eta Arkaitz Ordoki (Nova NP-03) izan zen Urbasako Igoerako txapelduna, joan den urteko garaipeña berrituz. Pilotu iruindarra iazko denboretan ibili zen. Iaz 3:16.701 minututan irabazi zuen proba, eta aurten 3:16.080tan, ehuneneko batzuk azkarrago. Nolanahi ere, 2022an Joseba Iraolak ezarritako errekorretik (2:57.862) urruti geratu zen. Bigarrena Daniel Jimenez (BRC

B49) izan zen, 12 segundora (3:28.978), eta hirugarren Iker Palacios Andueza lakuntzarra (BRC B52), 16 segundora (3:32.923). Palaciossek 4 segundotan hobetu zuen iazko denbora. Behetik gora egin zuen, entrenamenduetan 3:42.001eko denbora egin baitzuen. Lehendabiziko hiru sailkatuek lehen mangan egin zuten euren denborarik onena.

Zaleen babesarekin Gainontzeko sakandarrei dago kienez, Arkaitz Irigoien Barandiaran bakaikuarra 21. sailkatu zen (Clio, 3:59.252), bigarren sakandar onena eta bigarren laugarren klasean; Odei Juango lakuntzarra 23. izan zen (BMW E46, 4:00.192), hirugarren sakan-

SAKANA MOTORSPORTEN POZIK DAUDE, URBASAKO MOTORRAREN FESTA HANDIA IZAN ZELAKO

darra; Delfin Goikoetxea Esnola 40. sailkatu zen (Alpine PRM Proto, 4:07.248); Asier Juanez Garcia 42. (Clio Sport, 4:08.846), zortzigarren klasean lehena; eta Ander Gurmindo Vicente 44. (Clio Sport 4:09.511), 7. klasean hirugarren. Arakil Motorsporteko Jesus Perez de Obanos Belokik ezin izan zuen proba bukatu.

Alpinchea, ikusmin handia 1970.ean sortu zuten Alpinche autoa, Alpine eta Porscheren arteko hibridoa, arrakasta handia izan zuena. Autoa 1975.ean Urbasan egon zen, eta istripua izan zuen, elurrarengatik. Zaharberrituta, Urbasako Igoerara ekarri zuten mangak ixteko, eta zaleen artean ikusmin handia sortu zuen.

Sakana Motorsport-ek eskerrik beroenak eman nahi dizkie boluntario guztiei, ibilbidea garbitu zuten Sarayko kideei eta sarrerak saldu zituzten Olaztiko eskolakoei baita ere.

Asistentzia guneko mugimendua



Iker Palacios Mikel anaiarekin, asistentzia gunean.

Iker Palacios Andueza, podiumean. Pilotu lakuntzarrek Arkaitz Ordoki garaitzea oso zaila zela aitortu zuen igoera hasieran. "Ordoki da faborito handia; ongi ibili, eta podiumagatik borrokatzea da gure lana". Hirugarren izan zen, Daniel Jimenezekin lehia estua izanda.



Arkaitz Ordoki entrenamendua egin eta gero, asistentzia gunerantz, pozik.

Faboritoak ez zuen huts egin. Joan zen urteko txapeldun Arkaitz Ordoki iruindarra zen aurten ere Urbasako Igoera irabazteko faboritoa. Ez zen sorpresarik izan eta erraz gailendu zen, Daniel Jimenez bigarrenari 12 segundo aterata.



Asier Juanez, asistentzia gunean autoa doitzen.

Asistentzia gunea, bor-borka. Goiz goizetik mugimendu handia egon zen asistentzia gunean. Entrenamenduak jokatu baino lehen gurpilak berotu eta autoei doikuntza lanak egitea ezinbestekoa izan zen. Pilotuek mekanikari, lagun eta zaleen bisita jaso zuten.

Izan giltzarri!



Olatz Irizar Martinez Ziordiko alkatea

Kaixo, Olatz Irizar naiz, Ziordiko alkatea eta Guaixeko bazkidea. Zuek ere izan zaitezte Guaixeko bazkideak. Guaixek egiten duen lana behar beharrezkoa delako gure eskualdearen garapenerako. **Izan zaitez giltzarri!**



**guaixe.eus/
kideak**



Jaialdiaren aurkezpenean Ane Martijak kontzertua eman zuen.

Jaialdiaren azken notak

Zama doinuaz arindu Etxarri Aranazko elkartasun jaialdiaren hamargarren edizioa antolatu dute urtarrilean; "preso eta iheslarien" zamarekin laguntzeko azken jaialdia izango da ere. Kartel handia prestatu dute, eta igandeko jaialdirako sarrerak agortu dira

Eneida C. M. eta E. R. B. ETXARRI A. Etxarri Aranazko Zama Doinuz Arinduren hamargarren eta azken edizioa izanen da 2025eko urtarrilaren 24an eta 26an, ostirala eta igandea; urriaren 4an, ostiralean, egin zuten aurkezpena Etxarri Aranazko plazan egindako ekitaldian. Ane Martija abeslari etxeberrirak eta Bulkada talde sakandarrak kontzertua eman zuten eta Mirari Martiarenak ere bakarrik egin zuen. Kartel "handia" aurreikusitako zuten: Unidad Alavesa, Skabidean, Malandro DJ, Gorka Urbizu, ZETAK, El Drogas, Olaia Inziarte, Porrotx, Gatibu, Brigade Loco, Eñaut Elorrieta, Zea Mays, Nogen, Bulogo eta Juantxo Arakama izanen dira Zama azken doinuak etxerantz jaialdian. Sorpresaren bat

egongo dela aurreratu du Mikel Mundiñano jaialdiaren antolakuntza taldeko kideak. Igandeko jaialdirako sarrerak hiru egunetan agortu ziren; ostiraleko kontzertuetarako sarrerak oraindik ez dituzte salmentan jarri.

Azken izanik, X. Zama doinuaz arindu jaialdiak zenbait aldaketa izango ditu. "Azken edizioa izango dela nabarmendu nahi dugu". Hortaz, "bigarren" lelo bat jarri dute: Azken doinuak etxerantz. Aurreko edizioak urtarileko igande batean ospatu

URTARRILAREN 24AN ETA 26AN IZANEN DA X. ZAMA AZKEN DOINUAK ETXERANTZ, ETXARRIN

izan dira, eta bi saio izan ditu, azkena, aldiz, bi egunetan izanen da, urtarrilaren 24an, ostirala, gaztetxean eta urtarrilaren 26an, igandea, Etxarri Aranazko eskolako kiroldegian.

Hamargarrena

2016. urtean martxan jarri zuten Zama doinuaz arindu proiektua: "Herrian bizi genuen eta oraindik pairatzen dugun egoera edo errealitate batek eraman gintuen proiektu hau martxan jartzera. Azken hamarkadetan Euskal Herrian bizi izan den gatazkak zama ikaragarria utzi du gurea bezalako herri txiki batean, eta oraindik uzten ari da". Mundiñanok azaldu duenez, azken 47 urteetan hamabost hilabetez baino ez da Etxarri Aranatz preso edo iheslaririk gabe egon.

"Adibide esanguratsua da eta argi eta garbi ikusarazten du herri honetan bizi izan duguna". Egoera horrek egunerokoa "inpaktu eta eragin nabarmenak izan dituela jarraitu du jaialdiaren antolatzaileak; "egunero sumatzen genuen egoera edo errealitate hori".

Zama hori arintzeko modu asko daudela eta "modu batean edo bestean" herrian hainbat ekimen egin direla gaineratu du Mundiñanok: "Guk zama hori doinuaz edo musikaz arintzeko proiektua jarri genuen martxan". Hamar urteren ondoren, "oso zapore onarekin" emango diote amaiera proiektuari. "Dударik gabe preso eta iheslarien egoera hobetu da, urrats garrantzitsuak eman dira momentu honetan gauden egoerara iristeko, baina ez gara erlaxatu behar". Mundiñanok azaldu duenez, gaur egungo egoerak ez du "erabateko konponbidea" ekarri eta "salbuespen neurriek" etxerako bidea oztopatzen dute: "Egoera hobetzeak zama arintzea ekarri du, dudarik gabe, baina zama hori oraindik hor dago".

Aurkezpena

Urriaren 4an aurkeztu zuten X. Zama doinuaz arinduren kartela eta "oso ondo" joan zela esan du Mundiñanok: "Aurreko egunetan egindako lanak emaitza izan du". Aurkezpenarekin batera "festatxo bat" antolatu zuten, "sekulako kartela zabalduko genuen zurrumurrua ere zabaldu nahi izan dugu; jakinda, horrela zela". Herritarrei eta Sakanako jendeari lehenetsuna eman nahi izan diote sarrerak erosteko orduan ere, "eta hori ere primeran joan zen". Sarrerak hiru egunetan agortu ziren, "ez dago aukerarik sarrera gehiago erosteko, baina sarrerarik gabe gelditu direnek aukera dute hurrengo egunetan ikusteko, Aho-tsa.info edo Hamaika Telebistaren webguneetan". Emanaldian, besteak beste, Ane Martija eta Bulkada aritu ziren, "talde berriei leku bat eskaini nahi genien".

Bi egunetan ospatuko da Zama azken doinuak etxerantz. Urta-

"ZAMA HORI DOINUZ EDO MUSIKAZ ARINTZEKO PROIEKTUA JARRI GENUEN MARTXAN"

rrilaren 24an, 22:00etan, Unidad Alvesa, Skabidean eta Malandro DJ izanen dira, eta urtarrilaren 26an, igandea, 18:00etan, Herri eskolan, Gorka Urbizu, ZETAK, El Drogas, Olaia Inziarte, Porrotx, Gatibu, Brigade Loco, Eñaut Elorrieta, Zea Mays, Nogen, Bulogo eta Juantxo Arakama egongo dira. "Urtero nolabait ikuskizun bezala planteatu izan dugu, eta abeslarien parte hartzea eta hainbat kontu uztartu ditugu; mezu bat zabaldu nahi dugu jaialdi horrekin". Azken Zaman jaialdiaren formatua mantenduko dute: "Akustikoa izango da, eta abeslari bakoitzak bi abesti joko ditu". Saio bakarria izango da ere, "ahaztezina, baina bakarria".

Auzolana

Zama doinuaz arindu jaialdia auzolanean antolatu da beti, eta oraingoan ere "beste auzolan handi eta erraldoi" bat izango da. "Gure xumetasunetik, erronka handi bat da horrelako jaialdi bat aurrera eramatea eta jende guztia pozik egotea". Aurreko urteetan baino "beso eta buru" gehiago beharko dituztela esan du Mundiñanok, "eta antolaketa ere beste maila bat hartuko du", baina badaki jendeak erantzungo duela.

Azken jaialdia den arren "oso zapore onarekin" gelditzen direla esan du antolakuntzako kideak. Proiektuari amaiera ematen "eta gainera merezi duen amaiera ematen" jakin behar dela esan du etxarriarrak. "Maila honetako jaialdi bat antolatzeko atzean duen lan eta auzolan handi horrekin urtetan mantentzea ez da bideragarria, eta normaltasunez eta harrotasunez ongi ixten jakin behar dugu". Oinarria jarrita dago eta hutsunerik ez dutela utziko esan du Mundiñanok, "zama dagoen bitartean herria antolatuko da".

Hamar urte hauetan 70 abeslari "zerrenda luze bat" pasatu da Etxarri Aranazko kultur etxetik Zama jaialdian. "Ezin genituen denak gonbidatu". Parte hartuko duten guztiek "oso erraz" baietz esan dutela gaineratu du etxarriarrak. "Urte honetan egindako lanak emaitzak eman ditu: ongi antolatutako jaialdia, herritik herriarendako, xumetasunetik, baina ilusio handiarekin". Egindako bideak agurraren antolatzea "erraztu" du.

Eneko Lazkozek Errexil sariketa irabazi du

Urruñan jokatu da Errexil bertsolari zenaren omenezko bertso sariketa, irailean eta urrian. Hamabi bertsolarik parte hartu dute, eta etxarriarra izan da txapelduna. Jean Louis Eizmendi 'Errexil II'-ak jantzi zion txapela, Urruñako posta gelan

ETXARRI ARANATZ

Eneko Lazkoz bertsolari etxarriarra da Errexil sariketaren txapelduna. Irailaren 20an, 27an eta urriaren 4an jokatu da sariketa, Urruñako Posta gelan, Bertsozale Elkarteak Urruñako herriko etxearekin elkarlanean. Euskal Herri oso hamabi bertsolarik parte hartu dute, eta finalera sei bertsolari iritsi ziren. Urriaren 4an jokatuak finalean buruz burukora bertsolari etxarriarra eta Maddi Sarasua lehiatu ziren, eta, azkenean, Eneko Lazkozek jantzi zuen txapela. Errexil II-ren eskutik jaso zuen txapela.



'Errexil II'-ak jantzi zion txapela Eneko Lazkoiz. BERTSOZALE ELKARTEA

1984. urtean Bertsularien Lagunak elkarteak lehen Errexil sariketa antolatu zuen, Errezilen, 1918an Urruñan bizi eta 1965ean zendu zen Juan Jose Eizmendi Goenaga Errexil bertsolariaren omenez. 40. urteurrenaren aitzakian, bertsolari sariketa berreskuratzeko gogoia piztu zitzaion Bertsozale Elkarteari: "Gure aldetik, bertsoa bera hauspotu, eta Ipar Euskal Herrikoak zein Hego Euskal Herrikoak diren bertsolariei txoko honetan lekua emateko xedea gailentzen da".

Sariketa

2024. urteko Errexil sariketak bi saio eta finala izan ditu; irailaren 20an, ostirala, Ramuntxo Christy, Eneko Lazkoz, Maddi Ane Txoperena, Oihane Perea, Eneritz Artetxe eta Aitor Servier bertsolariak aritu ziren. Gai jartzailea Amaier Lujanbio izan zen, eta Eneko Lazkozek irabazi zuen finalerako txartela 174,5 punturekin.

Bertsolari sariketaren bigarren saioa irailaren 27an, ostirala, izan zen eta Patxi Iriart, Eneko Abasolo Abarkas, Maddi

Sarasua, Josu Sanjurjo, Aissa Intxausti eta Miren Artetxe bertsolariak aritu ziren, Xalbat Alzugarai gai jartzailearen esanetan. Bigarren saioan Aissa Intxausti bertsolariak lortu zuen finalerako zuzeneko txartela, eta, azkenean, Eneko Lazkoz, Aissa Intxausti, Miren Artetxe, Eneko Abasolo Abarkas, Maddi Sarasua eta Ramuntxo Christy iritsi ziren finalera. Epailan Lanetan Lur Renteria eta Iban Thikoipe aritu ziren.

Errexil sariketaren finala urriaren 4an, ostiralean, izan zen, eta Aritz Bidegain gai jartzailearen gidaritzapean sartu ziren Urruñako Posta gelara sei bertsolariak. "Giro goxo eta beroan ale ederrak" utzi zituztela esan dute Bertsozale Elkartetik. Buruz burukoan Eneko Lazkoz eta Maddi Sarasua lehiatu ziren. Epailan Lanetan Iban Thikoipe, Maialen Berra eta Ainhoa Sarasua aritu ziren. Azkenean, Eneko Lazkoz gailendu zen final handian. Txapeldunari Juan Jose Eizmendi Goenaga Errexil bertsolariaren seme den Jean Eizmendi Errexil II-ak jantzi zion txapela.

BAZTERRETIK

URDIAINGO
LIBURUTEGIA

Non gogoan, han liburua

Historiari errepasso bat eman nahiko zeniokeela? Gizakion alde ilunean sartzeko gogoz intrigazko eta suspensezko narrazio batean murgilduz? Eta zergatik ez umore absurdoak? Edo maitasun erromantikoak sortzen dituen desoreka emozionalekin bat egitea nahiko zenuke? Zientzia fikzioa? Etorkizuneko gizarte hipotetiko batera bidaiatu nahi?

Zure herriko liburutegian liburua zain daukazazu, zure beharretara egokitzeko prest!

Bestalde, akordatu fikziozkoak ez diren liburuez beteta dauzkagula liburutegiak. Egia da, gaur egun, askoz errazagoa dela edozein gairen inguruan zalantza dugula Interneten bilatzea, baina, nolana ere, har ezazu tartetxo bat, eta sar zaitez liburutegian; begiratu, hartu, kuxkuxeatu.

Besteak beste, Katakrakek Nadezhda Krupskaiaren **Herriaren hezkuntza eta demokrazia** liburua argitaratu du. Eta nor izan zen Nadezhda Krupskai? Iraultzaile errusiarra eta pedagogoa izan zen, pobrezia amildu zen San Petersburgoko familia aristokratiko bateko kidea. 1894an testu marxistak irakurtzen zituen talde klandestino batean bilakatu zen marxista, eta han ezagutu zuen Lenin, bizitza osorako burkide izan zuena.

Emakume batek idatzitako umorezko liburua ere badugu: **Hasta la potxola me tenéis**, Ane Lindanek, mingain zorrotzeko umoristak, idatzia.

Mandamentu hipermodernoak gaur egungo inertiak zalantzan jartzen duena.

Arrain hezur bat eztarrian Olatz Mitxelenak idatzitako ipuin liburua, ohera joan aurretik bat irakurtzeko modukoa, arinak eta aztoragarriak.

Ilunpeko zelataria Ladron Aranaren eleberri honetan, bi

haurren begiradaren bitartez, gerra garaiko Iruña grisean sartzeko aukera izango duzue.

Hormak Gazte jendeari zuzendutako eleberria idatzi du Oihana Iguaranek. Institutuko sarrerako horman **LEA PUTA** idatzita aurkitu dute ikasleek.

Eta, bukatzeko, haurrei zuzendua, baina heldu batekin batera gozatzeko liburua:

Urrezko giltza: Urrezko Giltza urrezko hitzez beteta, tradizioarekin lotzen gaituztenak, baina etorkizunari begira. Tradizioaren trantsizioa helburu, Patxi Zubizarretak istorio bizi-bizi bat asmatu du, nolabait ere familia baten urte oso bateko bizimodua kontatzen duena, urtaroen arabera banatua. Ama ile apaintzailea, aita kamioizalea, Kattalin, Nikolas eta Malen haurrak, aitona nekazaria eta amona bidaiazalea. Pertsonaia hauek protagonista dituen ipuina, kantua, formulak eta poemak uztartzen dituen kontakizuna, Jokin Mitxelenaren irudi zoragarriez ilustratua eta Joserra Senperen pianoaz lagundua, 2 CD ere baitakartza.

Bardoen finalerako lehenengo puntuak banatu dituzte

Irurtzunen, Tafallan eta Iruñean jokatu ziren taldekako bertsolari txapelketaren lehen hiru finalurrekoak

SAKANA

Mutilatuak, Baztanzopak eta Hor gu! taldeek lortu zituzten finalerako lehenengo puntuak Bardoak Nafarroako taldekako bertsolari txapelketan. Urriaren 4an jokatu ziren lehenengo hiru finalurrekoak, horietako bat Irurtzungen Pikuxarren. Joan-itzulerako finalurrekoak dira, beraz, urriaren 12an jokatu dira itzulerako saioak, eta orduan erabakiko dira finalerako sailkatuak.

60 bat lagun bildu ziren Bortzirriak eta Baztango Mutilatuak eta Barañain eta Atarrabiako Argako Bixiguak taldeen arteko saioa entzuteko. Azkenean, Mutilatuak taldeak lortu zuten puntua, beraz, pausu bat eman dute urriaren 26an jokatu den Garesko finalean sartzeko.

Tafallan hogei pertsona baino gehiagoren aurrean aritu ziren



Bardoak Pikuxarren. NBE

Leitza, Altsasu eta Barañaingo Manteleko Sobrak eta Baztango Baztanzopak taldeen arteko saioa entzuteko. Baztango taldeak irabazi zuen.

Iruñeko saioan Hor gu! eta Ez-Krashak aritu ziren, Hor gu!-k irabazi zuen.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Luzatzen diren poteo horietako batean, Altsasuko Idergi tabernaren inguruetan Iñaki Lopez, Iñaki Bengoetxea, Jonan Zelaia eta Iradi Galartza gazteak musika talde bat sortzearen inguruan aritu ziren. "Jonanek esan zuen ea jotzeko talde bat egiteko gogoia ote geneukan, eta baietz atera zen", azaldu du Iradi Galartzak, taldeko abeslariak. Taldea sortzeko izen bat behar zuten, eta batek Perros hitza aipatu eta beste batek Mata, taldea Mataperros deitzea erabaki zuten. Apirilaren hasieran lehendabiziko aldiz entseatzeko elkartu ziren eta maiatzaren hasieran, Iturmendiko San Migel festetan, eman zuten beren lehenengo kontzertua. Lopez baxu jolea da, Bengoetxea eta Zelaia gitarra joleak eta Galartza abeslaria, bateria jole bat behar zutela ikusita, Mikel Etxabarriri esan zioten, koroak ere egiten dituen. Jendeak punk talde baten gogoia zuela aipatu dute taldekideek.

"Punk rockaren abestiak" jotzen ditu Mataperros taldeak. "Jendeak entzun nahi zituen abesti zaharrak", abeslariak gaineratu duenez. Eskorbuto, La Polla, Barricada, Kaotiko edota Kortaturen abestien bertsioak egiten ditu Mataperros taldeak, "abesti ezagun horiekin hastera pentsatu genuen, eta gero hasiko ginen gure abestiekin".

Dagoeneko abesti propioak sortzen hasi direla aipatu du Lopezek, "zerbait pentsatu dugu, ideiak baditugu, baina bukatu gabe daude. Momentuz punk bertsioak jotzen ditugu". Inspirazioa edozein momentutan etor daitekeela gaineratu du Etxabarririk: "Aurreko egunean Iñaki eta biok hitz egiten ari ginen eta esan zidan bat-batean gai baten inguruan letra bat idatzi zuela, irakurri nuen, eta irakurtzen ari nintzela erritmoarekin hasi nintzen. Inspirazioa iritsi zitzaidan". Baten inspirazioak bestearena sor dezakeela gaineratu du bateria joleak. Sortu eta gutxira kontzertuak ematen hasi zen Mataperros taldea. "Ez genuen pentsatzen hainbeste kontzertu ematea. Uste genuen entseatzeko nahiko egongo ginatea, eta bat-batean, entseatzeko hasi, eta maiatzean deitu ziguten jotzeko".

Iturmendiko San Migel festetan, maiatzean, egindako kontzertu



Mataperros taldea. UTZITAKOIA

Faltan botatzen zen taldea

Punk taldeen abesti mitikoak eszenaratzen ditu Mataperros taldeak. Altsasuko eta Iturmendiko bost lagunek sortu dute, eta kide bat izan ezik, haien lehenengo musika taldea da. Hainbat kontzertu eman dituzte; musikatik harago doa

hura lehenengo "booma" izan zela gaineratu du abeslariak. Dagoeneko zazpi bat kontzertu "arrakastatsu" eman dituzte. "Jendeak ikusi du badagoela talde bat jotzeko gogoia duena; deitzen hasi zitzaizkigun eta aurrera egin dugu". Erantzuna "oso ona" izan dela eta joan diren lekuak beteta egon direla gaineratu dute taldekideek. Haien zaleen artean gazteak eta "oso gazteak" daudela esan dute. Gogoan dute Iturmendin jo zuten sei edo zazpi urteko haurrak bertan zeudela eta lelo bat oihukatut zietela: "bai, bai, bai Mataperros hemen da".

MATAPERROS TALDEAK PUNK ABESTI MITIKOAK ESZENARATZEN DITU

Etxabarririk: "Txundituta gelditu nintzen". Bateria jolea sartzearekin taldeak gorakada izan duela esan dute, Bengoetxeak azaldu duenez, laurak hasi ziren eta bateria jolerik ez zuten berak jotzen zuen bateria: "Baina erokeri bat izan zen. Gero Mikel sartu zen eta askoz hobeto".

Ikuskizuna

Mataperros taldeak "hainbeste entzuten ez diren" abesti mitikoak eszenaratzen ditu. "Jendeak agian etxean ez ditu entzuten, baina tabernetan eta parranda giroan bai, eta orduan gu hasi gara horiek jotzen. Ni showman bat naiz eta jendeak badaki eszenatokia gustatzen zaidala; orduan, nik talde batean aritzea eta abesti horiek jotzea...". Izan ere, ez da berdina abestiak taberna batean entzutea edo kontzertu giro batean. "Pertsona batek baino

gehiagok esan digu Mataperros bezalako talde bat faltan zutela", gaineratu du Etxabarririk. Lopezek aipatu duenez, jotzen dituzten abestiak "ezagunak" dira, "jendeak ezagutzen ditu, eta nik uste hori dela gehien gustatzen zaiona jendeari". Taldearen arrakastaren beste arrazoi bat, "2:00etatik jotzea tokatzen zaigu eta ordurako jendea oso bero dago...", kontatu du bateria joleak.

Etxabarririk da musikaren munduan esperientzia duen taldekide bakarra. Besteak beste, Xuar taldean aritu da. Taldekideek haren esperientzia eta lana go-

ONDO PASATZEA ETA KONTZERTU GEHIAGO EMATEA DIRA TALDEAREN HELBURU NAGUSIAK

raipatu dute, baita taldeari "xar-ma berezia" ematen diola ere. Galartza: "Beste talde bat aurrera eraman zuen eta baterian oso ona dela ikusi dugu; guretako plazer bat da gurekin egotea". Bateria joleak gogoratu duenez aurten 15 urte egingo ditu bere lehenengo kontzertua eman zuela. "Esperientzia eman dezaket. Esan dezaket: lasai, hau horrela egin dezakegu. Mutil gazteak eta hasiberriak dira, eta batzuetan ikusten zaituzte gaztea eta hasiberria eta zurekin nahi dutena egiten dute. Nik esaten diet: lasai, hemen gaude gu eta aurrera".

"Jendea gustatzen zaio eszenatokian mugimendua egotea, txorakeriak egitea, eta ikusi dute Evaristorekin eta beste talderen batekin igo izan naizela, eta orduan nik talde bat dudala ikustea eta ona dela... Hori jendearendako izugarria da", aipatu du Galartzak. Abeslaria "showman" bat dela eta Etxabarririk ere bateria jotzeko modu berezia duela dira Mataperrosen bereizgarrietako bi. Bateria joleak ere taldekideen "ausardia" nabarmendu nahi izan du: "Entsegu oso gutxirekin ausartu egin ziren kontzertu bat ematera. Jotzeko esan zieten eta jo zuten". Batzuetan urduri egoten direla gaineratu du, "baina normala da, lehenengo kontzertuak dira. Baina nik uste oso-oso ausartak direla, eta zuzenean defendatzen dute egiten dutena".

Bengoetxeak kontatu duenez, "besterik gabe gure artean jotzeko eta jotzen ikasteko" planteatu zen taldea: "Eta Iradik entsegu batekin kontzertu bat egin behar genuela esaten hasi zen. Guk esan genuen hobe lasai joatea, hiru edo lau abesti atera eta gero kontzertuak emango genituela". Lehenengo kontzertuaren kartelean, gainera, "talde sorpresa" jartzen zuela gogoratu du Lopezek: "Ez zen sorpresa handia izan azkenean; mundu guztia enteratu zen gu ginela".

Ondo pasatzea, kontzertu gehiago ematea eta musika ikasten jarraitzea da helburua. Etxabarririk: "Niretako musikaren helburua ongi pasatzea da. Ez dirua eta abar. Jende askok galdetzen digu ea kobratzen dugun. Afaria, garraioa... Gutxienekoa. Ondo pasatzea, hemendik hara joatea, toki eta jende berria ezagutzea eta esperientzia berriak bizitzea da eramaten duguna. Barre asko egiten dugu ere".

"Nire 600 D-a Katxarro Egunera eramango dut"

Urriaren 12an VII. Katxarro Eguna antolatu dute Bakaikun. Hurbilduko diren ehunka auto, moto eta bestelako katxarroen artean Iñaki Lazkano Rosa lakuntzarraren Seat 600 D egongo da. Lehenengo edizioetan izan ezik, guztietan parte hartu du

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

1 Seat 600 D urdin eta eder baten jabea zara. Noiztik?

2004an erosi nuen. Nire kapritxo bat izan zen, baina gurasoen etxean aurretik Seat 600a izan genuen. Nire izeba bati zozketa batean tokatu zitzaion, eta errege egun batean ekarri zuten, ni gaztetxoa nintzela. Izebak gida baimenik ez zuenez, aitak erabiltzen zuen. SS 99669 matrikula zuen, eta, egun, ilobarena da. Nik erosi nuena SS 85986 da. Bi autoak 1969 urtekoak dira.

2 Non erosi zenuen?

Ilobak deitu zidan: "osaba, Idiazabalen 600 bat dago salgai". Une horretan bertan Idiazabale-ra joan nintzen, eta egunean bertan tratua egin genuen.

3 Zaharberritu behar izan zenuen?

Txuria zen, eta Iruñeko tailer batera eraman nuen ongi jartzerara. Ni ere bueltaka ibili nintzen, piezak lortu behar zirelako. Auto guztia desmuntatu genuen. Motorra originala da; ongi garbituta, primeran zegoen. Txapa aldetik lana bazuen, pixka bat utzita zegoelako. Pieza guztiak originalak dira, berriak. Galizian Seat-en pieza originalak saltzen dituen etxe bat dago, eta Bilbon ere badago beste bat. Azkenik, urdinez margotu nuen. Urdin argi hori Seat 600 D-ren kolore originaletako bat da, eta argi nuen kolore hori nahi nuela.

4 Autoa asko ibiltzen da?

Gasolinazkoa da. Ez du abiadura asko hartzen, 80-90 km/o tartean. Garai batean gehiago ibiltzen zen, baina orain hortxe ibiliko da. Ez dut behartzen.

5 Autoa zaharberritzen dirua zehente gastatuko zenuen. Kapri-txo ederra!



Iñaki Lazkano Rosaren Seat 600 D-ak 55 urte ditu eta zoragarria da.

Dirua barra-barra joaten zaizu, egia da, baina egindako zaharberritzearen ondoren, begiratu, eta zein polita den ikustea satisfazio handia da. Tarteka ibiltzen naiz, ITV-a egunean duelako.

6 Zer sentitzen da halako auto klasiko batean zoazela?

Poza. Jendeak begiratzen zaitu, agurtzen zaitu... Xelebrea izaten da, autobian kamioi handi horien parean poxpolo kaxa batean bezala zoazelako, baina beraiek ere bozina jotzen didate, eta aurrera. Haurrak pozarren jartzen dira ikusten nautenean. Bozina jotzeko eskatzen didate.

7 Betidanik gustatu al zaizkizu auto klasikoak? Tentazioan erori, eta gehiago dituzu?

Beti gustatu izan zaizkit. Beste hiru auto ditut: garai batean izan nuen Seat 131a, 1990ko Jaguar

Sovereign bat, eta 1936ko Opel Olympia. Auto guztien zergak ordaintzen ditut, baina hiru hauek ez ditut mugitzen, ITV-a egunean jartzea da falta zaien bakarra. Seat 131k errepasso bat beharko luke, baina besteak prest daude. Opel Olympiak historia polita du. 1936ko gerran halako sei auto etorri ziren Bilbora. Toki gehiago izango banu, auto klasiko gehiago erosiko nituzke, aitortzen dut. Behin hiru auto batera eskaini zizkidaten, baina tokirik ez dudala erantzun nion. Hori da nire arazoa.

8 Argi dago mundu honek harra-patzen zaituela.

Bai, guztiz. Tarteka, hitzordua jarri eta ibilbideak ere egiten ditugu. Halako gauzak.

9 Urriaren 12an VII. Katxarro Eguna Bakaikun. Egunderra.

Primerakoa, oso polita. Jende asko joaten da, eta giro bikaina dago. Lehen urtean izan ezik, gainontzeko edizio guztietan parte hartu dut, eta aurten ere han izango naiz, 600-arekin. Momentuz beste autoak ez ditut eman. Harreman handiak egiten ditugu, eta pasadizoak kontatzeko egun aproposa da, bakoitzak bere historia kontatzen baitu. Garai bateko autoak, kamioiak, motorrak, bizikletak, trilladorak... denetatik ikus daiteke. Antolakuntza ona dago atzetik.

10 Halakoetan autoa salgai duzun galdetuko dizute maiz.

Urtero galdetzen didate. Nire zaletasuna da, eta horretarako erosi nituen. Ez dute preziorik. Kapritxoa duenak edozein gauza

pagatuko luke gustuko duen autoarengatik, baina ez ditut salgai.

11 Klasikoetan zein da zure auto kuttunena?

Auto normaletan Eskarabajoa, eta goi mailakoetan, Rolls Royce Phantoma. Behin, Andorrako garaje batean nire Jaguarra bezalako auto bat zegoen, konpondu gabe, eta sekulako Rolls Royce Phantoma, zaharberritua. "Hau bai dela auto berezia!" esan nion garajeoari. Berak, ordea, Jaguarra gustukoagoa zuela esan zidan. Jaguar eraberritua nuela aipatu, eta nire Jaguarra eta bere Phantoma aldatzea proposatu zidan. Andorran geundelako eta paper mordoa eskatzen dituztelako, bestela... Phantoma etxera. Hura bai dela trastea!

ETA ZUK, ZER BEHAR DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU KORPORATIBOA

DISEINU EDITORIALA

ILUSTRAZIOA

WEB DISEINUA

PUBLIZITATEA

ITZULPENGINTZA

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Aitsasu
info@gkcomunikazioa.eus | www.gkcomunikazioa.eus